

(KO)GARAPENERANTZ URRATSEZ URRATS, BERDINTASUNAREN BIDETIK



Fundación Internacional
de Solidaridad
Compañía de María



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gizarte Politikako
Departamentua
Departamento de
Política Social



© FISC Fundazioa – Mariaren Lagundia, 2012

Iparragirre kalea 4, behea - 20001 Donostia

Tel.: 943 471 554 · Faxe: 943 451 094

epd@fisc-ongd.org

www.fisc-ongd.org

Koordinazioa: M^a Luz Sarabia Lavín, FISC Fundazioa – Mariaren Lagundia, epd@fisc-ongd.org

Egileak: Amaia Unzueta, Helena Martínez eta Cony Carranza

Zuzendaritza: Kambotik Consultoría Social

Diseinua eta maketazioa: Noski Desarrollo Sostenible, S.L. - R. Gerpe, P. García

Inprimaketa eta azaleztapena: Estudios Gráficos ZURE.

Itzulpena: Belaxe, Koop.E.

Lege-gordailua: BI-985/2012



(KO)GARAPENERANTZ URRATSEZ URRATS, BERDINTASUNAREN BIDETIK

Hitzaurrea

(Ko)garapenerantz urratsez urrats, berdintasunaren bidetik: Zein da helmuga?

Han, bidearen amaieran, helmugan, gizaki guztiak eskubide osoko partaide dituen gizarte bateratua ikustatzen badugu, epe luze eta ertainean zoriontasuna guztion esku dagoen ageriko ezaugarri bihurtzea nahi badugu, giza espezieko kide izan nahi badugu, argi-itzal eta guzti... Zergatik ez gara abiatzen bidean barrena urratsez urrats, behin eta berriz ihes egiten digun azken helmuga horretara iristeko? Zer erronka ditugu?

FISC Fundazioaren ustez, migrazioak egungo gizartearen funtsezko eta ezinbesteko osagaiak eta garapen iturri potentziak direla ulertzean datza erronketako bat. Dena den, nola bideratu behar dugu gaia, migrazioek gizakien eta oro har gizartearen garapenaren aldeko ekarpen positiboak egin ditzaten? Hain galdera korapilatsu horri erantzuten saiatzeko, gidaliburu hau idaztea erabaki dugu (ko)garapenarekiko interesa duten guztientzat, migrazioei eta garapenari lotutako esparruei buruzko gogoeta, elkarrizketa eta ekintza tresnatzat har dezaten. Beraz, beste GGKE batzuek eta hainbat inmigratzaile elkarterek eta erakunde publikok egin duten bezala, zenbait proposamen eskaintzen saiatu gara, gizaki guzti

hiritartasun osoa bermatzeko konpromisoan oinarrituz.

Garapenerako hezkuntzaren eta lankidetzaren arloko GGKEa garen aldetik, gure ikuspegian (ko)garapena txertatzea ezinbestekoa iruditu zaigu, Iparraldean eta Hegoaldean giza gaitasunak indartzea baitugu helburu. Horrela, ahalegin pertsonalak eta instituzionalak uztartuz abiarazitako aldaketa prozesuen bidez, pobretutako gizakien eta gizartearen bizi-baldintzak hobetzea eta gizarte inklusiboak sortzen laguntzea da gure asmoa. Ildo horretan, gidaliburuaren egileek (ko)garapenaz duten ikuspegiarekin bat egiten dugu, migrazioen eta garapenaren arteko lotura positiboan oinarritzeko ardatzak giza eskubideak direla aldarrikatuz. Gizaki guztiei giza eskubide guztiak bete-betean aitortzeaz eta ziurtatzeaz gain, jatorrizko, igarobideko eta helmugako gizartearen hiritartasun osoaz baliatzeko bermea eskaini behar zaiela uste dugu.

(Ko)garapenak zuzeneko loturak ditu inmigratzaileen integrazio eta hiritartasun prozesuekin, eta ez jatorrizko lurraldeetako gizartearen garapen

prozesuekin soilik. Gizarte zibilak (ko)garapenaren ezarpen praktikoa ahalbidetuko duten politika koherenteak ezartzeko eskatu behar die erakunde publikoei, erakunde horiek aukeratzen eta gauzatzen dituzten politikek argi eta garbi baldintzatzen baitituzte garapen prozesuen norabidea, batetik, eta inmigratzaileak helmugako gizarteetan integratzeko baldintzak, bestetik.

Bestalde, jakin badakigu genero harremanek berebiziko garrantzia dutela migrazio prozesuetan, baita prozesu horiek garapen prozesuak baldintzatzen dituztela ere, eta alderantziz. Beraz, egileen proposamenarekin bat eginez, migrazioen eta garapenaren arteko loturak genero ikuspegitik aztertzea oinarritzko baldintzatzat jotzen dugu, (ko)garapen ekintzen bidez gizarte inklusiboak eratzeko asmoa egia bihur dezagun. Gida honek, praktikan jarri eta barneratu ondoren, guztion hizkuntza komuna finkatzen laguntzea nahi genuke, amesten eta onIZATEA ezaugarri duen giza garapena mintzatzen jarrai dezagun. Gainera, (ko)garapena generoaren betaurrekoekin ikusten hasi nahi duteneztat ere baliagarria izatea espero dugu.

Donostia hiri eder honek gure helmuga begien bistan irudikatzen aukera eskaintzen digu: “(Ko)garapenerantz urratsez urrats abiatzea, berdintasunaren bidetik”.

Mariaren Lagundiaren FISC Fundazioak eskerrak eman nahi dizkie Amaia Unzueta, Helena Martínez eta Cony Carranzari, azaleratzen hasi berria den eta oraindik adostasunik ez duen gai bati buruzko gida idaztera ausartzeagatik. Halaber, bere eskerrona adierazi nahi dio Gipuzkoako Foru Aldundiari ere, “Hitza Dugu: los inmigrantes tenemos palabra” garapenerako hezkuntza proiektuaren alde hartu duen konpromisoagatik.

Azkenik, eskerrik asko (ko)garapen gizatiarra sustatu nahi duten inmigratzaile elkarte eta GGKE guztiei, gure ekimenaren aldeko egungo zein etorkizuneko atxikipenengatik eta (ko)garapen proiektuen arloko lan onarengatik.

Imanol Zubiondo
Mariaren Lagundiaren FISC Fundazioko zuzendaria
Donostian, 2012ko ekainaren 15ean



Ibilbidea

Sarrera	8
I. MULTZOA	10
1. Tailerra: Migrazioen eta garapenaren arteko loturak argituz. Generoa benetan da garrantzitsua?	10
1. Urratsa: Generoa, azterketa ardatz nagusia	11
2. Urratsa: Garapenerako eskubidea	13
3. Urratsa: Migrazio eta garapen prozesuen alderdi espaziala	17
4. Urratsa: Inmigratzaileen partaidetza garapenean	19
2. Tailerra: (Ko)garapenarekiko jarrera. Norantz jo nahi dugu?	21
1. Urratsa: Migrazio eta garapen politiken arteko inkoherentziak	21
2. Urratsa: (Ko)garapenaren agenda: nolakoa eta norentzat?	23
3. Urratsa: Nortzuek hartzen dute esku (ko)garapenean?	26
4. Urratsa: Ba al dakigu zer ez den (ko)garapena?	28
Bibliografia	29
II. MULTZOA	30
1. Tailerra: Genero berdintasuna (ko)garapen proiektuen plangintzan	30
1. Urratsa: (Ko)garapen proiektuen plangintza	31
2. Urratsa: Zein dira (ko)garapen proiektuen berezitasunak?	34
3. Urratsa: Genero azterketa (ko)garapen proiektuetan	38
2. Tailerra: Genero berdintasuna. Helburu hori gure proiektuetan sartu dugu jadanik. Eta gure erakundeetan?	42
1. Urratsa: Genero berdintasuna erakundeetan, gauzatzeke oraindik	42
2. Urratsa: Erakundeetan genero berdintasuna sustatzeko barne aldaketa	45
Bibliografia	50

Sarrera

Azken urteotan, (ko)garapenari buruzko hainbat azterketa eta eskuliburu argitaratu dira ondoz ondo, eta, horrela, terminoari lotutako ezaugarriak bereizgarriak zehaztu dira, nahiz eta definizio bateraturik ez den adostu. Aipatutako argitalpen gehienek egindako ekarpen eztabaidaezinak gorabehera, (ko)garapenaren arloko aktoreek askotan zalantzak izan ohi dituzte migrazio eta garapen prozesuetan esku hartzeko eta gaiaren inguruko ekimenak abiarazterako moduez. Ildo horretan, gure gidaliburuaren asmoa laguntza praktikoa eskaintzea da, batik bat (ko)garapenaren gaia ezagutu eta hausnartu nahi duten inmigratzaile elkartei, giza garapenaren helburuaren arabera jarreker hartu eta horren ikuspegi politikoarekin bat datozen proiektuak antola ditzaten. Gaiari buruzko hausnarketa egiterakoan, bestalde, generoa gizarte prozesu ororen ardatz bihurtzeko beharra kontuan izanik, genero ikuspegia txertatzea erabaki dugu, bi xede lortzeko nahiak eraginda: batetik, generoak migrazio prozesuetan duen garrantzia eta migrazio prozesuek garapen prozesuetan sorrarazten dituzten ondorioak (eta alderantziz) ulertarazteko; bestetik, genero harremanek bai gizakien bizitzan bai gizakiek sortutako erakundeen funtzionamenduan nagusi diren botere dinamiketan duen eragina nabarmentzeko. Aipatutako botere dinamikak erakunde mota guztietan sortzen dira, mistoak nahiz emakume hutsek osatuak izan. Gidaliburua antolatzeko eta idazteko urratsetan genero ikuspegiari sarbidea emanez, genero berdintasunaren aldeko apustu argia egin dugu, (ko)garapenaren eta (ko)garapena barne zein kanpo mailan sustatzen duten erakundeen helburua izan dadin. Ildo horretan, gogora ekarri behar dugu genero berdintasuna aldarrikapen teorikoa besterik ez dela maiz, benetan gauzatzeko apustu indibidual eta kolektiboak oso urriak baitira.

Gidaliburuak bi eduki multzo ditu, eta multzo bakoitzean hainbat tailer daude. Lehen multzoaren bidez lau ardatzen inguruko gogoetari ekingo diogu, migrazioen, generoaren eta garapenaren arteko loturen nondik norakoak ezagutzeko eta, horrela, erakundeei (ko)garapenarekiko jarrera zehazten laguntzeko elementu gehiago eskaintzeko. Bigarren multzoaren

xede (ko)garapena genero berdintasunean oinarritzearen garrantziari buruzko gogoeta bideratzea da, genero berdintasuna (ko)garapenaren helburu nagusi bihurtu dadin. Horretarako, bi lan maila ezarri dira edukiak jorratzeko: proiektuen plangintza, batetik, eta esku-hartzeak finkatzeko eta gauzatzeko antolamendu kultura, bestetik. Gidaliburuak, azken batean, (ko)garapenari buruzko gogoeta eta eztabaida genero ikuspegiari oinarritzeko ariketak eskaintzen dizkie erakundeei.

Gidaliburua inmigratzaile elkarteentzat idatzi dugu funtsean, eta urrats bakoitzaren edukiak lantzeko ariketa praktikoetan ere talde horiei erparatu diegu, (ko)garapen prozesu orotan berez dagokien partaidetza ukalezina kontuan hartuta, eta, era berean, (ko)garapenaren praktikaren eta generoan oinarritutako berdintasuneko giza garapenaren esparru politikoaren arteko koherentzia areagotzeko premia dagoelako. Dena den, beste eragile batzuentzat ere baliagarria izan daiteke, (ko)garapenaren arloko aktore sare zabalaren baitan duen kokapenaren arabera moldaketa egokiak eginez gero. Eragile horietako batzuk GKEak dira, aktore garrantzitsuak, garapen lankidetzaren esparruan lortutako esperientziaren eta profesionalizazioaren ondorioz garapenerako esku-hartzeen plangintzei buruzko ezagutza joriak dituztelako. Beraz, ekarpen erabakigarria egin dezakete inmigratzaile erakundeei laguntza teknikoa emanez. Orain, hain zuzen, krisia jaun eta jabe dela, migrazioen eta garapenaren arloetako eragileak bat eginik aritzea ezinbestekoa da, (ko)garapenari buruzko gogoeta eta ekintza prozesuak genero ikuspegitik jorratzen jarraitu eta epe ertainean edo luzean egungo eszenatokia aldatu ahal izateko.

Azkenik, (ko)garapenera hurbildu nahi duten guztiak tailerrak egitera eta gidaliburuan jaso gabeko ezagutza berriak sortzera animatu nahi ditugu. Halaber, (ko)garapenaren edo proposatutako tekniken aplikazioaren inguruko ekarpenak helaraztera ere gonbidatzen zaituztegu (epd@fisc-ongd.org y kambotik@gmail.com).

Gida nola erabili

Tailerren aplikazioari buruzko gomendio orokorrak:

- Tailerra prestatzeko: Taldeak landuko diren gaiet buruz zenbaterainoko ezagutzak dituen egiaztatzea. Oro har, oinarriko edukiak prestatzea komeni izaten da, taldea jarduera bakoitzari ekin aurretik eta ondoren bideratzeko eta urrats bakoitzaren edukiak ongi ulertuko direla ziurtatzeko. Ez dugu pentsatu behar taldeko kide guztiek zenbait gairi (adibidez, giza eskubideei) buruzko ezagutzak dituztenik.
 - Jarduerari hasiera emateko: Jardueran landuko den gaia kokatzea da lehen zeregina. Kontua ez da testuen edukiak azaltzen hastea, taldeari jarduera egiteko argibideak ematea baizik.
 - Jarduera garatzeko: Jarduera bakoitzean proposatutako dinamikek eta galderek testuen edukiez hausnartzeko oinarriak eskaintzen dituzte. Dena den, zerbait azpimarratu nahi izanez gero, beste dinamika eta galdera batzuk ere planteatu daitezke, gidaliburuan jasotakoekin gain. Proposatutako dinamikek gaiak hobeto ulertzen lagundu nahi duten arren, litekeena da zenbaitetan helburua ez lortzea. Zentzu horretan, dinamizatzailearen ezagutzak eta esperientzia erabakigarriak izaten dira.
 - Jarduera egiteko unea: Jarduera bakoitza egiteko unerik egokiena zein den kontuan hartzea komeni da. Gidaliburuan ezarritako ordenari jarraitzea gomendatzen dugu, edukiak beren osotasunean hobeto ulertu daitezkeen.
- Jarduera bukatzeko: Dinamizatzaileek eztabaidatutakoaren laburpena egin eta jorratutako gaiaren kontzeptuak argitu behar dituzte, jarduera bakoitzaren amaieran. Zenbat eta ezagutza gehiago taldeak, orduan eta azalpen luzeagoak emango ditu dinamizatzaileak.

Jardueren dinamizatzaileentzako oharrak!

- Dinamizatzaile profila: Taldeekin lan egiteko ohitura eta herri hezkuntzako partaidetza tekniken aplikazioari buruzko ezagutzak dituzten dinamizatzaileekin aritzea da egokiena. Bestalde, trebetasun jakin batzuk ezinbestekoak dira, hala nola, entzuten eta hitz egiten jakitea eta jendea parte hartzera bultzatzeko gaitasuna, enpatia eta galde-erantzunak lotzeko ahalmena izatea.
 - Gaiak ezagutzea: Garrantzitsua da dinamizatzaileak jorratuko diren gaiak ezagutzea. Hala ez bada, adituen laguntza eta ekarpen baliatzea gomendatzen dugu, dinamizatzaileen lana osatzeko.
 - Jardueren iraupena: Jarduera bakoitzarentzat proposatutako denborak gutxi gorabeherakoak dira, eta gehienez ere 20 lagunekoko taldeentzat. Iraupenak moldatzea gomendatzen dugu, parte-hartzaile kopuruarekin bat etor daitezkeen.
- Jardueren emaitzak taldearen ezaugarrien eta dinamizatzaileen profilaren araberakoak izango dira.

I Multzoa

1 Tailerra

**Migrazioen eta garapenaren arteko loturak argituz.
Generoa benetan da garrantzitsua?**

Aurkezpena

Tailerra lau saiok osatzen dute, eta bakoitzean azterketa ardatz bat lantzen da. Lau ardatz horiek nahitaezkoak dira migrazioen eta garapenaren arteko loturak genero ikuspegitik ulertzen hasi ahal izateko. Migrazio eta garapen prozesuen inguruan gailendu den ikuspegia, ekonomia azterketan oinarritua, zalantzan jartzea da saioetako bakoitzaren edukien helburua. Gogoeta egitea eta eztabaidatzea funtsezkoa da, (ko)garapenarekiko jarrerak kritikoa finkatzeko eta, batik bat, migrazioen, generoaren eta garapenaren arteko lotura ulertzeko eta aztertzeke gai izateko.

1 Urratsa

Generoa, azterketa ardatz nagusia

Helburua: Errealitatea generoaren ikuspegitik aztertzeko beharren zergatiak ulertzea.

1 Jarduera

“Identitate aldakorrak gara”


Helburua: Identitate femenino eta maskulinoan izandako aldaketei eta/edo jarraikortasunei buruzko gogoeta egitea, migrazioaren esperientziatik abiatuta.

Noiz: 1. testua irakurtzen hasi aurretik.

Iraupena: : 60 minutu.

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: Parte-hartzaile bakoitzak bere migrazio prozesuari buruzko gogoeta indibiduala egingo du, migratu aurretik nola bizi zen eta orain nola bizi den aztertuz. Gero, parte-hartzaile bakoitzari galdera honen erantzuna txartel batean idazteko eskatu diogu: “Nire identitate femeninoaren/maskulinoaren zer ezaugarri indartu dira migrazio esperientziaren ondorioz?”. Arbelean bi zutabe marraztuko ditugu: “Identitate femeninoa” eta “Identitate maskulinoa”. Parte-hartzaile bakoitzak bere txartela dagokion zutabean ezarri eta erantzuna argituko du. Txartel guztiak ezarri eta gero, beste galdera bat egingo dugu: “Zerk sorrarazi ditu aldaketa horiek nire identitate femeninoan/maskulinoan?”. Generoa gizarteratzeko ereduen inguruko eztabaida burutu ondoren, 1. testua irakurtzeari ekingo diote.



1 Testua

Generoari buruzko oinarritzko ideia batzuk

- Sexua eta generoa ez dira gauza bera: sexua berezkoa da, biologikoa; generoa sortu eta ikasi egiten da. Emakumezko edo gizonetzko sexu organoekin jaio egiten gara, baina “emakume izaten” edo “gizon izaten” ikasi egiten dugu.
- Generoa emakumeei eta gizonei dagokien identitatea ezartzen duen kategoria soziala da: gizarte bakoitzak rol, zeregin, balio eta bizi espektatiba jakin batzuk finkatzen ditu emakumeentzat eta gizonentzat. Oro har, emakumeei edo identitate femeninoari atxikitako ezaugarriak gutxiesteko joera dago.
- Generoaren kategoria aztertzeari ekin behar zaio, emakume eta gizonen arteko botere harremanak berrezartzeko. Izan ere, genero harremanak, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunetako botere harremanak, aldatu eta birsortu egin daitezke.
- Generoa ez da, ordea, emakume eta gizonen identitate bereizgarriak sorrarazten dituen kategoria sozial bakarra. Gizon guztiak ez dira berdinak, eta emakume guztiak ez dira berdinak. Badira beste kategoria sozial batzuk ere: gizarte maila, sexu joera, nazionalitatea... Horiek guztiek beste hainbat identitate sorrarazten eta emakumeen arteko zein gizonen arteko harremanak baldintzatzen dituzte.

Generoa gizarte eta kultura bakoitzak sortua denez, tokian tokiko bereizitasunak ditu, eta, ondorioz, litekeena da gizarte batetik bestera migratzen dutenen identitate femeninoan edo maskulinoan zenbait aldaketa egokitzea. Aipatutako aldaketak bi baldintzaren arabera izaten dira, hau da, jatorrizko testuinguruko gizon-emakumeen sozializazio ezaugarrien eta lurralde berriko gizartean nagusi den genero ereduaren arabera. Dena den, beste aldagai batzuek ere eragina izaten dute horretan guztian: gizarte klaseak, etniak, hezkuntza mailak, sexu orientazioak etab.

2 Jarduera

“Saski-naski”

Helburua: Generoaren sozializazio lanaren sexu banaketaren bidez nola gauzatzen den ulertzea.

Noiz: 2. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 45 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: Aulki guztiak biribilean ezarri behar dira. Zenbat parte-hartzaile, horrenbeste aulki. Dinamizatzaileak esertzeko eskatu eta hauxe azalduko die: lan edo zeregin bat boz goran esaten duen bakoitzean, lan edo zeregin jakin hori egunero edo astero egiten dutenak beste aulki batean eseriko direla. Gero, zeregin bakoitza entzundakoan zer sexutako parte-hartzaileek aldatu duten aulkiz aztertu behar da, eta bi galderari buruz gogoeta egin: “Zer lan edo zeregin egiten zenituzten zuen jatorrizko lurraldean?” eta “Zer lan edo zeregin egiten dituzue hemen?”. Gogoetak idatziz jaso ondoren, jarduera bukatzeko, 2. testua irakurtzeari ekingo zaio.

2 Testua

Generoak migrazio eta garapen prozesuak baldintzatzen ditu

Generoak gizarte eta ekonomia sistema osoaren funtzionamenduan du eragina, eta, gainera, maila txikian (gizakiengan eta etxeetan), ertainean (komunitatean eta lan merkatuetan) eta handian (estatuetan, enpresa multinazionalen...) sortu ohi diren dinamika moten iturburua da.

Norbere gaitasunak eta askatasunak garatzen uzten ez duten lurraldeetako hainbat gizon-emakumek migratzea erabakitzen dute, etorkizun hobea izateko. Generoa faktore erabakigarria izan ohi da jatorrizko eta helmugako herrialdeetako migrazio eruedetan. Horrela, adibidez, lan arrazoietan oinarritutako zenbait migrazioen beste eragile batzuk ere aurkituko ditugu (sexu indarkeria, sexu orientazioaren ondoriozko jazarpena etab.).

Lan merkatuek ezaugarri duten sexu segregazioak lanaren sexu banaketa dakar berekin, eta lan aukera eta baldintza desberdinak sortzen ditu emakume eta gizonentzat, bai jatorrizko lurraldeetan, bi helmugakoetan. Oro har, emakumeak eskatzen dituzten sektoreetan, bereziki zerbitzu pertsonalen alorrean (etxeko lanetan, zaintzan eta sexu lanetan), lan baldintzak txarragoak dira.

Beraz, helmugako herrialdeko lan baldintzak ere, jatorrizko lurraldekoak bezala, txarrak izaten dira. Migrazioa lan sektore jakin batzuetara bideratu ohi da, migratzaileen lan eta gizarte eskubideak mugatuz eta dokumentazioa eskuratzeko aukerak ukatuz edo oztopatuz, zenbaitetan. Ildo horretan, zerbitzu pertsonalen arloak, emakumeen ohiko lan esparruak, argi eta garbi erakusten du genero desberdintasunek (eta etniaren, klasearen eta nazionalitatearen arabera bestelako berezikeret) erabateko eragina dutela migrazio eruedetan, eta inmigratzaileen bizi proiektuak gauzatzeko eta jatorrizko zein helmugako gizartearen garatzeko aukerak bete-betean baldintzatzen dituztela.

2 Urratsa

Garapenerako eskubidea

Helburua: Giza eskubideak genero ikuspegian oinarrituz bermatzea migrazioen eta garapeneraren arteko lotura positiboaren funtsezko ardatza dela ulertzea.

3 Jarduera

“Gizakia naizenez, eskubideak ditut”

Helburua: Migrazio esperientziaren ondorioz eskubide baten lorpen maila handitu edo murriztu egin daitekeela eta gizonen eta emakumeen eskubideez baliatzeko aukera berberak ez dituztela ikustea.

Noiz: 3. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: Parte-hartzaile bakoitzari kolore desberdineko bi txartel eman behar zaizkio. Txartel batean jatorrizko lurraldetik hona etorri ondoren murriztu edo ukatu zaien eskubide bat idatziko dute, eta beste txartelean hemen lortu duten eskubideren bat, lehen ez zeukatena. Handik 5 minutura, txartel guztiak mapa batean ezarriko dituzte. Maparen erdialdean jatorrizko eta helmugako herrialdeen eremuak egongo dira, eta txartelak dagokien tokian kokatuko dituzte, lortutako edo mugatu zein ukatutako eskubideak diren kontuan hartuta. Azkenik, galdera hau egingo zaie: “Emakumea edo gizona izateak ba al du zerikusirik eskubide jakin horietaz baliatzeko aukeretan?”. Ondoren, generoak bizi eta migrazio esperientzia eta, beraz, eskubideez baliatzeko aukerak baldintzatzen dituela errepikatuko du dinamizatzaileak, eztabaidari bidea emateko. Genero desberdintasunei buruzko datuak ere erakutsi diezaieke. Jarduera bukatzeko, 3. testua irakurtzeari ekingo zaio.

3 Testua

Garapenaren edukia

Guretzat eta geure familia eta gizartearentzat zer garapen eredu nahi dugun erabakitzea izango da garapenaren edukia zehazteko abiapuntua edo lehen urratsa. Garapena ez da termino neutroa. Gaur egun, ekonomia hazkundearekin parekatzen da, norbere bizitzarentzat eta gizartearentzat funtsezkoak diren alderdiak baztertuz: hazkunde pertsonala, osasuna, askatasuna, hezkuntza etab. Hau da, ez da kontuan izaten prozesu zabalagoa dela eta gaitasunen garapena eta askatasunen gauzapena ere hartzen dituela barne. Prozesu zabal hori nahitaezkoa da, gizaki bakoi-tzak bere bizi proiektuak gizarte jasangarri batean garatzeko aukera izan dezan.

Beraz, garapenaren edukiak migrazioen eta garapenaren arteko lotura ulertzeko modua baldintzatzen du. Eduki ekonomikoa besterik ez badiogu ematen, migrazioak herrialdeen arteko desberdintasun sozioekonomikoak orekatzeko konponbidetzat hartuko ditugu, eta inmigratzaileei jatorrizko herrialdeen garapena sustatzeko erantzukizuna ezarriko diegu, dirua bidaliz batik bat. Eduki humanoa emanez gero, migrazioak gizakien eta gizartearen arteko garapen desberdintasunen ondorioak direla ikusiko dugu. Inmigratzaileek garapenaren alde egin beharreko ekarpenari dagokionez, argi ikusi dugu zein den abiapuntua: hiritartasuna lortzeko eta gauzatzeko aukera bermatuz, inmigratzaileen giza eskubideak bete-betean ziurtatzea.

Beraz, migrazioen eta garapenaren arteko loturaren giltzarriak giza eskubideak direnez, ezinbestez bermatu beharreko oinarriak finkatu behar ditugu. Gutxienez, mugikortasun askatasuna, lan duina eta osasun eta hezkuntza eskubidea ziurtatu behar ditugu, emakume eta gizonen arteko berdintasunezko baldintzak bermatuz beti. Genero berdintasuna garapen prozesuari lotutako funtsezkoa eskubidea da, hau da, emakumeek eta gizonek giza eskubideez baldintza berberetan baliatzeko eta gozatzeko aukera izan behar dute.

Askotan, garatzeko eskubiderik ez izategatik (garapen desberdintasunengatik) hartzen da migratzeko erabakia, baina helmugako gizartearen ere garapen indibidual eta kolektiborako eskubideari mugak jartzen zaizkio, hiritartasuna lortzeko aukera ukatuz, alegia, giza eskubideak urratuz. Horregatik, migrazio prozesuen eta garapenaren arteko loturak aztertzerakoan ezinbestekoa da giza eskubideen egoerari erreparatzea.

4 Jarduera

“Bizitza testigantzak”

Helburua: Besteak zaintzeak garapenarentzat duen garrantziaz jabetzea.

Noiz: 4. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: Parte-hartzaile bakoitzak Silviaren eta Juanen testigantzak irakurriko ditu. Kideen ekarpenen bidez, familiaren irudi grafikoa marraztu eta istorioko pertsonaien kokapen geografikoari erreparatuko diogu. Ondoren, binaka, galdera hauei erantzungo die: “Silvia eta Juanen errealtatea ezaguna egiten zaizue? Besteak zaintzea nortzuen ardura izaten da, nagusiki? Besteak zaintzeko lana baloratu egiten dela uste duzue? Zer gertatuko litzateke lan horrek gizarte aitortpena eta diru ordaina izango balitu?” Taldeko bikote guztiek elkarren gogoetak entzun ondoren, jarduerari bukaera emateko, 4. eta 5. testuak irakurriko dituzte.



4 Testua

Garapenerako eskubidea genero ikuspegitik bermatzeko proposamen bat

Eskubideez benetan baliatzeko eta gozatzeko aukera ukatzearen arrazoia berbera da jatorrizko eta helmugako gizarte guztietan: desberdintasunezko botere harremanak eta hainbat ezaugarriren (generoaren, etniaren, klasearen, sexu orientazioaren, migrazio estatusaren...) ondoriozko bazterkeria harremanetan oinarritutako egitura. Adibidez, emakumeen eta homosexualen kontrako indarkeriatik ihesi iritsitako inmigratzaileek helmugako herrialdeetan ere arazo bera izan dezakete. Beste horrenbeste gertatzen da emakumeen eta gizonen lanen arteko balorazio eta soldata desberdintasunekin. Emakumei gizonei baino askoz gehiago kostatzen zaie bizi baldintza duinak lortzea eta norbere bizi proiektua garatzea, bai jatorrizko bai helmugako herrialdeetan, bi gizarte funtzionamendua genero desberdintasunetan oinarritzen delako.

Gizarte bakoitzak rol eta funtzio jakin batzuk ezartzen dizkie emakumei eta gizonei; emakumeen eginbeharra ugalitzea da, eta gizonena ekoizpen lanetan aritzea. Zainketa eta garbiketa zereginetan aritzen direnen lan eskubideak urratzeko joera oso hedatuta dago, eta, horrela, lan duina lortzarekin zerikusia duten eskubide guztiak zanpatzen dira. Ondorioz, emakumeak errazago erortzen dira gizarte zaurgarritasuna sorrarazten duten egoeretan, eta arazo handiagoak izaten dituzte hiritartasuna eskuratzeko eta gauzatzeko.

Genero ikuspegiari oinarritutako garapen eskubideak ugalketaren esparruko eskubide urraketa salatzen eta besteak zaintzeko lana garapenerako funtsezko ardatza dela aldarrikatzeko bidea emango digu. Besteak beste, zainketa lanen balioa azalerrazte eta aitortzea ahalbidetzen du, gizakien eta gizartearen garapena sustatzeko oinarria dela agerian uzteaz gain. Bestela esanda, zainketarik gabe, ez dago garapen ekonomikorik, pertsonalik, sozialik, kulturalik, politikorik... Aipatutako planteamenduak garapenerako esparruko nahitaezko eskubideak ugaritzen dizkigu, eta, era berean, egun eztabaidatzen eta hezuramaitzen ari den beste eskubide bat dakar bere-

kin: zaindua izatekoa, alegia. Zainketa egokiak hartzeko, zaindu nahi den ala ez aukeratzeko eta zeregin horretan lan baldintza duinetan aritzeko eskubideak uztartzen ditu. Zainketa kate orokorren fenomenoak (5. testua) zainketek gizakien bizitzarentzat eta gizarte funtzionamenduentzat duten garrantzia argi eta garbi islatzen du.

5 Testua

Zer dira zainketa kate orokorrak?

Silviak eta Juanek 2 seme-alaba dituzte. Hilabeteak daramatzate sarrerarik gabe eta kinka larriari daude. Mariak, Espainiara migratu zuen Silviaren lagunak, etxe batean "interna" aritzeko aukera eskaini dio. Mariak emakume baten seme-alabak zaintzen ditu, senar-emazteek etxetik kanpo lanean ematen dituzten orduetan. Silviak emakume horren aita zainduko luke. Senarrarekin hitz egin ondoren, lana onartzea erabaki eta Espainiara etorri da Silvia. Senarra bere amaren etxera joan da, bi seme-alabak zaintzen lagun diezaion. Silvia gizonaren etxean bizi da, eta askotan jasanezina iruditzen zaio familiarengandik hain urrutik egotea. Iritsi eta urtebetera, familia elkartzeko izapideak martxan jarri ditu, baina oztopo ugari sortu zaizkio bere lan baldintzen ondorioz, hau da, etxeko langilea izateagatik. Azkenik, ez du senarra eta seme-alabak ekartzetik lortu. Silvia lan egiten duen bakarra denez, senarra eta seme-alabak Espainiatik hilero jasotzen duten diruaren mende daude.

Zer dira zainketa kate orokorrak?

Migrazioaren jatorrizko eta helmugako gizarteetan etxe barruko zainketak bermatzeko sortzen diren kateak. Oro har, emakumeek osatzen dituzte, eta zainketak batzuen edo besteen esku geratzen dira botere ardatz jakin batzuen arabera: gizarte klasearen, jatorriaren eta etniaren arabera, alegia.

Zergatik dira nagusi emakumeak kate horietan?

- Migrazioaren jatorrizko lurraldeetako aukerarik ezak eta prekaritateak

emakumeengan eragin handiagoa dutelako.

- Bai jatorrizko bai helmugako lurraldeetan etxea eta etxeako zaintzeko ardura emakumeen esku dagoelako, gizarte arauen ondorioz. Horregatik, Iparraldeko familiek emakume etorkinak hartzen dituzte etxeko lanak egiteko eta etxeako zaintzeko.

Zer adierazten dute kate horiek?

Besteak zaintzea funtsezkoa dela etxeek eta gizarte eta ekonomia sistemek egoki funtzionatzeko. Dena den, bistakoa da zainketen antolamendu eredu soziala krisiak jota dagoela, norbere etxeakoak eta besteetakoak zaintzea emakumeen arduratzat hartu baita beti historian zehar.

3 Urratsa

Migrazio eta garapen prozesuen alderdi espaziala

Helburua: Bi prozesuak toki eta espazio desberdinetan sortutako faktoreen ondorioak direla ulertzea.

5 Jarduera

“Bihotzak banatuta”

Helburua: Inmigratzaileek helmugako gizartetik hain urrun bizi diren familiako kideenganako dituzten maitasun eta erantzukizun loturak transnazionalak direla ulertzea.

Noiz: 6. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: Talde osoaren parean munduko mapa ezarri eta kide bakoitzari bi bihotz emango dizkiogu, bata handia eta bestea txikia. Bihotz handiak gizakiaren maitasun eta erantzukizun loturarik sendoenak irudikatzen ditu, eta txikiak, berriz, hain sendoak ez direnak. Bi bihotzak munduko mapan kokatzeko eta aukeratutako kokalekuen zergatiak argitzeko eskatuko diegu. Ondoren, elkarrengandik urrun bizi diren pertsonen arteko lotura transnazionalei buruzko gogoetari bidea emateko, galdera hauek egingo dizkiegu: “Zer dakarkizue burura bihotzen kokapen geografikoak? Tamaina, kokapena eta esanahia aldatu egin daitezke denboraren poderioz?” Denen artean gogoeta egin eta gero, jarduerari bukaera emateko, 6. testua irakurriko dute.

6 Testua

Migrazio eta garapen prozesuen ikuspegi transnazi

Migratzaileek, oro har, jatorrizko familia eta gizarte ingurunearekiko harremanak ez dituzte eteten. Seme-alabak mantentzeko migratzen duten gizon-emakumeek are tinkoago eusten diote lotura horri, etxe-koekin etengabe harremanean egonez. Beraz, kanpora joandakoen eta jatorrizko bizilekuan geratutakoen arteko maitasun eta zainketa loturak transnazonaltzat jo ditzakegu, herrialdeen arteko mugak gainditzen ditzutelako. Alderdi hori nahitaez aztertu beharreko ezaugarria da, gune geografiko desberdinetan bizi diren kideen artean sortzen ari diren familia dinamika berriak ulertzeko. Adibidez, gizon-emakumeek familiar zegokien rola (gurasoa, seme-alaba...) urrutitik ere betetzen jarraitzeko moduak bilatzen dituzte, teknologia berriak erabiliz: webkamak, diru bidalketak, sorterriko etxearen kudeaketa... Familia transnazonalak ari dira sortzen. Dena den, inmigratzaile familia guztiak ez dira transnazonalak.

Familia transnazonalen fenomenoak migrazio prozesuen alderdi transnazonala uzten du agerian, argi eta garbi. Aipatutako prozesuak ezingo ditugu zuzen ulertu, aldeetako bati besterik ez badiogu erreparatzen. Dena osotasunean aztertu eta toki batean gertatutakoak sarritan bestean ere eragina izaten duela ulertu behar dugu, izaera transnazonal horrek prozesuen moduak eta esanahiak baldintzatzen baititu.

Zainketa kate orokorren fenomeno, era berean, garapen prozesuen alderdi transnazonalen adibidea da. Izan ere, zainketen transnazonalizazioa maiz aipatu ohi da. Bestalde, 5. testuan ikusi dugun bezala, zainketa kate orokorrak Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeetan aldi berean sortutako zenbait faktoreren ondorioak dira, eta faktore horien iturburua ekonomiaren globalizazioa izan da. Beraz, bi ikuspegiak (transnazonaltasunarena eta generoarena) uztartuz, argi dago Iparraldeko herrialdeen garapena Hegoaldeko herrialdeen azpigarapenean eta lanekuaren inportazioan oinarritzen dela. Lanekuari dagokionez, emakumeen eskaria da nagusi, batik bat gutxi baloratutako eta ordain-

dutako zereginetan aritzeko, hots, etxeko lanetarako eta zainketa edo sexu lanetarako.

Horrela, transnazonaltasunari eta generoari lotutako ikuspegiak prozesuen eta gertaeren testuinguru eta alderdi guztiak azaleratzen dizkigute, emakume eta gizonen bizitzan erabateko eragina duten desberdintasunezko botere harremanak agerian uzteaz gain.

4 Urratsa

Inmigratzaileen partaidetza garapenean

Helburua: Inmigratzaileek partaidetza hori ahalbidetzeko modu bakarra hiritartasun osoaz baliatu ahal izateko aukera dela ulertzea.

6 Jarduera

“Hitz egin dezagun garapenaz”


Helburua: Garapenari buruz dugun ikuspegiak gogoeta egin ondoren, hitzaren esanahia zehaztea.

Noiz: 7. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupen: 45 minutu.

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: Parte-hartzaile bakoitzak gizarte garapenari buruzko gogoeta indibiduala egingo du, bere ikuspegiaren arabera. Gero, lau kideko taldeak osatu eta talde bakoitzari kolore bateko orrialde bat emango diogu, garapenaren definizioa idazteko. Taldeko kide bakoitzak garapen terminoari lotutako hitzak idatziko ditu orrialdean, eta, gero, lauren artean definizio bateratua sortuko dute. Talde guztien definizioak entzun ondoren, giza garapenaren kontzeptuaz generoaren ikuspegitik hausnartuko dute. Jarduerari bukaera emateko, 7. testua irakurtzeari ekingo diote.



7 Testua

Migrazioen eta garapenaren arteko loturen protagonistak

Migrazioen eta garapenaren arteko loturen protagonistez mintzatzen garenean, ezin dugu ahaztu gizakiez ari garela. Zer esan nahi du horrek? Gizakiak direla eta, beraz, eskubideak dituztela. Migrazioen eta garapenaren inguruko ikuspegi ekonomizistak alderdi horri ez dio jaramonik egiten, inmigratzaileak lan merkatuentzat garrantzitsuak direlako eta baliabide ekonomikoak sortzen dituztelako hartzen baititu aintzat, besterik gabe. Ba al dago protagonismo horretan inmigratzaileen eta garapenaren giza alderdiari ere sarbidea emateko modurik? Bai, eta, gainera, ezinbestekoa da inmigratzaileek garapenean duten eragin erabakigarriaren inguruko diskurtso eta ekintza oro protagonismo mota horretan oinarritzea.

Lehenik eta behin, inmigratzaileak garapenaren subjektutzat hartu behar ditugu, hiru zentzutan, alegia, protagonistak eta onuradunak direlako eta edukia baldintzatzen dutelako.

- Protagonistak dira, jatorrizko eta helmugako gizarteetako garapen prozesuak sustatzen dituztelako, lan, gizarte, kultura eta ekonomia arloetan eta beste hainbat esparrutan egiten dituzten ekarpenen bidez.
- Garapenaren edukia baldintzatzen dute, partaide diren garapen prozesuen edukiei eta esku-hartzeen helburuei buruzko erabakiak hartuz. Beraz, partaidetza eremu berriak sortu edo lehengoak berrantolatuta egin behar dira.
- Onuradunak dira, garapena sustatzen baitute, norbere bizi eta lan baldintzak hobetzeko asmoz.

Inmigratzaileei hizpide dugun protagonismoa aitortzerakoan, giza eskubi-deen lorpena eta gauzapena ere izan behar ditugu kontuan, gizakia helburu ekonomiko hutsekin lotzen duen ikuspegi instrumentala eta gizakia erabakitze eta jarduteko ahalmenik gabeko objektutzat hartzen duen ikuspegi biktimista errotik baztertuz. Hori guztia bereziki garrantzitsua da emakume inmigratzaileen kasuan, migrazioen eta garapenaren agente pasibotzat jotzen baitituzte maiz.

7 Jarduera

“Garapenaren collagea: ekarpenak eta onurak”

Helburua: Inmigratzaileek (ko)garapenean benetako partaidetza izateko, garapenaren alde egiten dituzten ekarpenak eta garapenaren onurez baliatzeko eskubidea aitortu behar zaizkiela ulertzea.

Noiz: 6. jarduera egin eta 7. testua irakurri ondoren.

Iraupena: 75 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: 4 laguneko taldeak osatu eta collage bat egiteko eskatuko diegu. Bertan, inmigratzaileek jatorrizko eta helmugako gizartearen garapena nola sustatzen duten eta garapenaren onurez nola baliatzen diren irudikatuko dute. Talde bakoitzari egunkariak, aldizkariak, argazkiak, kartelak, foiletoak... emango dizkiogu, eta paper bat ere bai, moztutako irudiak itsasteko. Collagea egiten hasi aurretik, irudiak ezartzeko modua erabakitzea komeni da, ekarpenak eta onurak bi eremutan ezarri behar dituztelako. Munduko mapa itsua (munduaren silueta) ematea egokia izan daiteke. Gustuko irudirik aurkitzen ez badute, marrazkiak edo bururatzen zaien beste zerbait egin dezakete. Handik 30 minutura, talde bakoitzak bere collagea aurkeztuko du. Ondoren, galdera hauek egingo dizkiegu: “Zer ekarpen egiten dituzte inmigratzaileek garapena sustatzeko? Zer onura ematen dizkie garapenak? Ekarpen eta onura horiek iristen al dira jatorrizko gizarteetako familia eta komunitateetara? Gizon-emakume inmigratzaileen ekarpenak eta onurak berberak al dira?” Jarduerari bukaera emateko, talde osoak gogoeta egingo du.

2 Tailerra

(Ko)garapenarekiko jarrera. Norantz jo nahi dugu?

Aurkezpena

(Ko)garapen terminoa ez da neutroa. Migrazioaren errealitatea eta migrazioaren eta garapenaren arteko loturak aztertzeko eta ulertzeko modua garapenari buruz dugun ikuspegiaren eta erakunde gisa aldarrikatzen dugun garapen ereduaren arabera izango da. Ondorioz, diskurtso jakin bat sortu eta (ko)garapen jarduketa jakin batzuk jarriko ditugu abian. Horrelako diskurtso eta jarduketa batzuek giza eskubideak urratzen dituzten politikekin lerra daitezke; beste batzuek, aldiz, giza garapen indibidual eta kolektiboaren aldeko politikak ezartzen lagun dezakete.

Tailerraren bidez, (ko)garapenarekiko jarrera zuzena hartzen eta beren agenda (genero ikuspegia ahaztu gabe) finkatzen lagundu nahi diegu gizarte erakundeei.

1 Urratsa

Migrazio eta garapen politiken arteko inkoherentziak

Helburua: Egungo migrazio politiken norabidea ezagutzea eta giza garapena sustatzen duten politikekin zertan ez datozen bat ikustea.

8 Jarduera

“Migrazio bidaia”

Helburua: Migrazio prozesuaren oztopo ugarietako buruzko gogoeta egitea.

Noiz: 9. jarduera egiten hasi baino lehen.

Iraupena: 45 minutu.¹

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: “Bidaia lagunak”² eta “Saiden bidaia”³ bideoak edo beste batzuk ikusi ondoren, galdera hauek landuko dira: “Zergatik hartzen dute gizon-emakumeek emigratzeko erabakia? Zer oztopo nagusi gainditu behar izaten dituzte bidaian zehar? Eta helmugako gizartean? Oztopoak berberak dira inmigratzaile guztientzat?”. Bideoak ikusitakoan, 4 laguneko taldeak osatuko ditugu. Galderen erantzunak taldeka eztabaidatuko dituzte lehenbizi, eta denen artean gero. Azkenik, 9. jarduerari ekingo diote.

¹ Lehenbizi taldeka eta gero guztien artean egin beharreko lanaren iraupena. Bideoa ikusteko denbora erantsi behar zaio.

² Bidez Bide elkarteak egindako bideoa. Zarautzen (Gipuzkoan) du egoitza. Ikus esteka hau: <http://bidezvide.wordpress.com/>

³ Bideoa <http://www.cuadernointercultural.com> gunean.

9 Jarduera

“Informazioaren txokoa”

Helburua: Giza eskubideez benetan baliatzeko aukerari dagokionez, Europako politika globalak migrazioaren arloan ezarritako mugak ezagutzeko.

Noiz: 8. jarduera egin eta 8. eta 9. testuak irakurri eta gero.

Iraupena: 75 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: Gelako hiru txokotan kartel bana ezarriko dugu. Kartel bakoitzean “migrazio politikaren ikuspegi globalaren” ardatz bati buruzko informazioa egongo da. Hiru talde osatu behar dira. Txalo hotsa entzuten duten bakoitzean beste txartel batera joatean datza jarduera. Hiru txokoe-tan egon eta gero, talde bakoitzari txartel bat emango diogu. Bertan, galdera hauek daude: “Zer dio X ardatzak Europako migrazio politikaz? Ardatzaren onurak inmigratzaile guztiengana neurri berean iristen dira? Zer eskubide sustatzen eta mugatzen ditu?” 20 minutu igarotakoan, taldeek elkarren erantzunak entzungo dituzte. Ondoren, Europako migrazio politikari buruzko estrategiaren ezaugarri nagusiak gogorarazi eta giza eskubideetan oinarritutako (ko)garapen agendekin zertan ez datozen bat aipatuko dugu. Azkenik, 8. eta 9. testuak irakurriko dituzte.

Gomendioak: Tailerra egiten hasi aurretik, parte-hartzaileei gaiari buruzko bizpahiru dokumentu ematea komeni da.

8 Testua

Ken diezaiegun migrazio eta garapen politikei beren mozorro diskurtsiboa

Iparraldeko herrialdeek Hegoaldekoiei eskaintzen dieten garapen laguntzari edo lankidetzari dagokionez, bideratzeke dagoen gai garrantzitsu bat datorkigu gogora: abiarazitako politiken berezitasunen eta politika horiek Hegoaldeko herrialdeen garapenean izaten ari diren eraginaren arteko koherentziarik eza. Sarritan, Iparraldeko herrialdeetako lankidetzaren politiken eta beste arlo batzuetan (merkataritzan, nekazaritzan, arrantzan, migrazioetan...) ezarritakoen artean kontraesan garbiak atzematen ditugu. Lankidetzaren politiken azken helburua Hegoaldeko herrialdeetako pobrezia-aren kontra borrokatzea eta garapena sustatzea da; beste hainbat arlotako politikak, aldiz, Iparraldeko herrialdeetako interes geoestrategiko, politiko eta ekonomikoekin bat datoz funtsean. Ondorioz, lankidetzaren politika gobernu-iei garrantzitsuagoak iruditzen zaizkien beste politika batzuen interesen mende erortzeko arriskua sortzen da. Hain zuzen, horixe gertatu da azken urteotan migrazio politikarekin.

Europako garapen lankidetzaren migrazio politikaren mende dago, gero eta gehiago. Zer esan nahi du horrek? Garapen laguntzaz baliatzen diren hainbat herrialde inmigratzaileen jatorrizko lurraldeak edo igarobideak dira, eta herrialde laguntzaileekin (migrazioen helmugako eremuekin) sinatutako migrazio hitzarmenen arabera kopuruak jasotzen dituzte. Beraz, garapen laguntza eskuratzeko, Iparraldeko herrialdeetako gobernuen interesekin bat datozen hitzarmenak sinatu behar izaten dituzte.

Zein dira interes horiek? Batik bat, segurtasun nazionala, migrazio fluxuen eta mugen kontrola eta herrialde hartzaileetako ekonomia-aren hazkundera sustatzera bideratutako garapena. Hegoaldeko herrialdeen garapena bigarren mailako helburua da, eta inmigratzaileak lan merkantzia hutsak. Inmigratzaileen eskubide maila nazionalitatearen, generoaren, gizarte klasearen, hezkuntza mailaren eta lanbide prestakuntzaren arabera izaten da, besteak beste. Ikusten denez, migrazio eta garapen politika herrialde hartzaileen interesen mende dago, eta garapenaren helburuei,

lehentasunei eta onuradunei buruzko erabakiak herrialde horiek finkatzen dituzte. Aipatutako jokabidea eta (ko)garapenaren berezko ikuspegia aurrez aurre daude, beraz. (Ko)garapenak, izatez, migrazioen eta garapenaren arteko lotura positiboak indartzea du helburu eta, migrazioaren jatorrizko, igarobideko eta helmugako herrialdeen artean harreman horizontalak ezarri, baterako erabakiak sustatu nahi ditu.

(Ko)garapenak migrazio eta lankidetzak politikak garapenaren zerbitzura jartzen ditu, garapenerako eskubidea gizaki guztioi dagokigulako. Horretarako, herrialde igorle eta hartzaileek, garapen politiken koherentzia printzipioari jarraiki, (ko)garapenaren inguruko diskurtsoa eta praktika edo, bestela esanda, migrazio eta garapenei buruzko agenda giza eskubideetan oinarritu behar dute.

9 Testua

Europako migrazio politika globalaren ibilbideari buruzko laburpena

2005ean, Europar Batasuneko gobernuek migrazio fluxuak kudeatzeko estrategia bateratua onartu zuten: "Migrazio politikaren ikuspegi globala". Orduetik, Europako herrialdeetako kanpo migrazioei buruzko politiken helburu nagusia segurtasun nazionala bermatzea da, mugen kontrolaren bidez.

2008an, Europar Batasuneko gobernuek "Inmigrazioari eta asiloari buruzko Europako Ituna" zeritzon dokumentu politikoa onartu zuen. Inmigrazio ilegala kontrolatzea zen helburu nagusia.

2011n, Europar Batasuneko gobernuek Europako migrazio politika orokorra berrikusi eta hiru ardatzetan oinarritutako estrategia bateratua onartu zuten. Hona hemen hiru ardatzak: migrazio legala sustatzea, migrazio irregularrak prebenitzea eta jazartzea, migrazioen eta garapenaren arteko loturak hobetzea. Era berean, mugen kontrolari, migrazio kualifikatua erakartzeko asmoari eta aberriratzeko eta itzulerei eman zieten lehentasuna. Aipatutako estrategiak migrazioen eta garapenaren arteko lotura positiboak oztapatu egiten du, inmigratzaileen giza eskubideei entzungor eginez eta Europako herrialdeetako ekonomia eta demografia beharrei soilik erreparatuz. Migrazio politika orokorra eta garapen lankidetzarako politika ez datoz bat, inondik inora.

2 Urratsa

(Ko)garapenaren agenda: nolakoa eta norentzat?

Helburua: (Ko)garapena eta giza eskubideak elkarren mende daudela ulertzea eta gure (ko)garapen ildo estrategikoak zehaztea.

10 Jarduera

"(Ko)garapenaren mapa"

Helburua: (Ko)garapenari buruzko interpretazioak ezagutzea.

Noiz: 10. eta 11. testuak irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 30 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: Arbelaren erdian (ko)garapen hitza idatziko dugu. Parte-hartzaile bakoitzak (ko)garapenarekin zerikusia duen hitz bat inguruan idatzi eta zergatia azalduko du. Ekarpene guztien laburpena egin ondoren, 10. eta 11. testuak irakurtzeari ekingo zaio.

Gomendioak: 1. tailerreko 4. urratseko 6. eta 7. jardueretan landutakoa gogora ekartzea komeni da, eta, ariketa horiek egin ez badira, testua irakurri aurretik egitea.

10 Testua

(Ko)garapen utilitaristaren ordezkoko agenda: migrazioak, giza eskubideak eta garapena

Migrazioen eta garapenaren arteko loturak giza eskubideetan oinarrituz gero, migrazioari eta migratzaileei buruzko ikuspegi utilitarista bertan behar geratuko litzateke. Garapenerako eskubidea gizaki guztioi dagokigu, edonon jaio edo bizi arren, eta migrazioa eskubide hori lortzeko bidea izan daiteke. Aipatutako ikuspegitik abiatuz, giza eskubideen unibertsaltasuna nahitaizko betebeharrak bihurtu behar dugu, nola migrazio politiketan, hala garapena zuzenean zein zeharka ahalbidetzen laguntzen duten politika guztietan. Berdintasunean oinarrituz, gizarteetan giza eskubideak, askatasunak eta erantzukizunak bete-betean bermatuko dituzten politika publikoak aldarrikatzen ditugu.

Baina zer egin behar dugu giza eskubideen unibertsaltasuna (ko)garapenaren praktikan benetan islatzeko? Hona hemen funtsezko proposamen batzuk:

- (Ko)garapena estrategia politikotzat hartzeko beharra aldarrikatu. Jatorrizko eta helmugako gizarteetan integratzen laguntzea izango litzateke helburua.
- Migrazio eta garapen prozesuetan (jatorrizko, igarobideko eta helmugako herrialdeetan) giza eskubideak babesteko beharra aldarrikatu.
- Migrazio eta garapen politiketan jatorrizko eta helmugako herrialdeetako aktore guztiek parte hartzeko beharra aldarrikatu.

11 Testua

(Ko)garapenaren eta pertsonak gizarteratzearen arteko loturak

(Ko)garapenak, migrazioen eta garapenaren arteko lotura positiboanoinarritutako estrategia politikoak, giza eskubideak guztiontzat aitortzea eta erabat babestea dakar berekin, baita hiritartasun osoa bermatzea ere, nola jatorrizko hala helmugako lurraldeetan. Ikuspegi horretatik abiatuz, (ko)ga-

rapenaren xedea gizaki guztiak bete-betean gizarteratzea da, baldintza eta aukerak berberak dituztela. Hau da, gizarte inklusiboak sortzea du helburu.

Baina nola lor dezakegu hori? (Ko)garapen ekintzen bidez:

- Gizakiak garapenetik kanpo uzten eta desberdintasunak, pobrezia, derrigorrezko migrazioa etab. sorrarazten dituzten jardunbideak (ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak, sexistak...) ezagutzera eman eta gizarte aldatzeko alternatibak proposatuz.
- Gizarte inklusiboa aldarrikatuz, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen tresnak eta migrazioen eta garapenaren inguruko adierazpenak oinarri hartuta.

Ez dezagun ahaztu genero alderdia! Beti izan behar dugu gogoan desberdintasunek ez dutela eragin berbera gizonengan eta emakumeengan. Oraingoan ere lan arloko adibide bat aipatuko dugu. Herrialde hartzaileetara iritsitako emakume inmigratzaileak ezkutuko ekonomiaren esparruko lanik prekarioenetan aritzen dira gehienbat. Zerbitzu pertsonalen arloko eskaintzari esker, lan merkatuan sartzea lortzen dute, baina sarritan esplotazio egoerak eta bazterkeria (legala, soziala etab.) jasan behar izaten dituzte. Zerbitzu pertsonalen arloko emakume inmigratzaileen lan eskubideak zantututa daudenez, eta zantututa horren ondorioz beste zenbait eskubide ere urratzen zaizkienez, askoz ere oztopo gehiago dituzte hiritartasun osoaz benetan baliatu ahal izateko.

11 Jarduera

“(Ko)garapenaren horma-irudia”


Helburua: Giza eskubideetan oinarritutako (ko)garapen agenden funtsezko ekintzak ezagutzeta.

Noiz: 10. eta 11. testuak irakurri eta gero.

Iraupena: 90 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: 4 laguneko taldeak osatu eta koloretako kartoi meheak eta markatzaileak emango dizkiegu. 20 minututan, erakunde gisa (ko)garapenaren arloan egingo litzaketen ekintza nagusiei buruzko horma-irudia egin behar dute. Errazago aritzeko, ohar hauek kontuan hartzea komeni da: (a) taldeei nahi dutena irudikatzen utzi behar zaie, asmoetan edo beharretan mugarik ezarri gabe, (b) 1. tailerreko 4. urratseko 6. eta 7. jardueretan landutakoa gogoraraztea egokia izango litzateke, (c) galdera hauei buruzko gogoeta egin dezakete: “Zer da niretzat gizartean integratuta egotea? Eguneroko zer jarduerarekin sentitzen naiz gizartean integratuta? Zer egoeratan ez naiz sentitzen integratuta? Zer egin dezakegu gizarte inklusiboa sortzeko?”. Horma-irudiak denen aurrean aurkeztu ondoren, jarduerari bukaera emateko, giza eskubideetan oinarritutako (ko)garapen agenden oinarritzko ideiei eta ekintzei buruzko laburpena egingo da.



3 Urratsa

Nortzuek hartzen dute esku (ko)garapenean?

Helburua: (Ko)garapenari lotutako aktoreen protagonismoa zalantzan jartzea eta inmigratzaileen partaidetza aktiboa oinarritzko printzipiotzat hartzeko beharraz jabetzea.

12 Jarduera

“Zure ahotsa entzuten duen irrati”

Helburua: (Ko)garapenean zer partaidetza dugun eta zer partaidetza izan nahi dugun aztertzea.

Noiz: 12. eta 13. testuak irakurri eta gero.

Iraupena: 90 minutu.

Modalidad: Taldean.

Metodologia: 4 laguneko taldeak osatu eta 5 minutuko irrati saioa prestatzeko eskatuko zaie. 20 minutu izango dituzte. Irrati saioa galdera haue-
tan oinarrituko da: “Gure erakundeak ba du inolako partaidetzarik gune publiko edo pribatuetan (toki kontseiluetan, erakunde sareetan, kontsulta foroetan...)? Zer aldarrikatzen dugu gune horietan? Zer falta zaigu partaidetza handiago izateko? Zer egin dezakegu erakunde gisa gure eskariak eta beharrak entzunarazteko?”. Talde bakoitzak bere irrati saioa aurkeztu ahala, dinamizatzaileak ideia nagusiak hiru zutabetan idatziko ditu: (a) zer partaidetza dugun, (b) aldarrikapenak eta (c) zer partaidetza izan nahi dugun. Jarduerari bukaera emateko, inmigratzaileek (ko)garapenean duten partaidetzaren eta eragile soziopolitiko gisa duten partaidetzaren arteko loturari buruzko laburpena egingo da.



12 Testua

Inmigratzaileak, zeren protagonistak?

(Ko)garapenaren arloko aktoreen mapa izugarri anitza da egun, eta transnazionala, migrazioen jatorrizko, igarobideko eta helmugako gizarteak hartzen baititu barne. Aktore publikoek (gobernu zentraletan eta eskualde eta toki gobernuek) eta gizarte zibileko aktoreek (gizarte eta komunitate erakundeek, unibertsitateak eta ikerketa zentroek, enpresek eta finantza erakundeek, sindikatuek...) osatzen dute. Hitz batean, mapa horretan gizarte aktore guztiak daude, denek dutelako garapenaren aldeko ekarpenak egiteko gaitasuna. Beraz, (ko)garapenarekin zerikusia dutenen interesak hain desberdinak direnez, lidergoa eskuratzen edo nagusitzea lortzen duen parte-hartzaileak berari komeni zaion norabide politikorantz lerratuko du (ko)garapena.

Inmigratzaileei ustez aitortzen zaien protagonismoa arriskutsua da, beren lanaren bidez herrialde hartzaileen garapenaren alde egiten duten ekarpenari eta familiei bidaltzen dizkieten diru kopuruei besterik ez zaielako erreparatzen. Eta 7. testuan adierazi dugun bezala, protagonismo horretan beste alderdi batzuk txertatu behar dira, hau da, gainerako aktoreekin batera garapen prozesuei buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna eta garapen horretaz baldintza eta aukera berberetan baliatzeko aukera.

13 Testua

Migrazio eta garapen politikak (ko)garapenaren aktoreen esku

(Ko)garapenaren bidez migrazioen eta garapenaren arteko lotura positiboak ahalbidetzeko, nahitaezkoa da esparru horretako politikari eta esku-hartzei buruzko erabakiak aktore guztien artean hartzea. Horretarako, ordea, erabakitze eskumenaren hainbat alderdi berrantolatu egin behar dira:

- (Ko)garapen politiken norabidea migrazioekin nolabaiteko lotura duten

herrialde guztien artean erabaki behar da, hartzaileek beren kasa finkatu beharrean.

- Erabakitze eskumena herrialdeetako gobernu zentralen artean banatzea ez da nahikoa, (ko)garapenean parte har dezaketen gainerako aktoreek ere (eskualde eta toki mailako gobernuek, gizarte zibileko erakundeek...) gaitasun berbera izan behar dutelako. Erabakitze eskumena deszentralizatzeko eta birbanatzeko asmo horretan, era berean, inmigratzaileak eta inmigratzaile elkarteek benetan parte hartzeko eta proposamenak egiteko aukera izan behar dute, desberdintasunak sorrarazten dituzten garapen prozesu baztertzailak bertan behera geratzeko.

- Hizpide dugun berrantolaketak gizonen eta emakumeen arteko botere berrantolaketari eman behar dio bidea maila guztietan, gizonen ahotsen oihartzunak emakumeen beharrak eta eskariak isilaraz ez ditzan.

Erabakiak hartzeko berdintasunezko prozesu deszentralizatu eta parte-hartzailea, maila guztietan gauzatu beharrekoa, "migrazio eta garapen politika eta esku-hartzeen jabeak demokratikoa eta inklusiboa" izango litzateke. Prozesu horrek (ko)garapenaren benetako protagonistak eta eskubideen subjektu sozialak izateko aukera bermatuko lieke inmigratzaileei, eta bidezko (ko)garapena ahalbidetuko luke, emakumeen eta gizonen behar eta eskariak kontuan hartuz eta denentzat onuragarria izanik.

4 Urratsa

Ba al dakigu zer ez den (ko)garapena?

Helburua: Egun nagusi den (ko)garapen agendaren alternatiba zuzen ulertu dela egiaztatzea.

13 Jarduera

“Jakinduriaren liga”

Helburua: 2. tailerraren edukiak orokorrean zenbateraino ulertu diren egiaztatzea.

Noiz: 2. tailerra bukatu eta 14. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 45 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: 4 laguneko bi talde osatu eta “egia” eta “gezurra” hitzak dituzten bina txartel emango zaizkie. Dinamizatzaileak 14. testuko baieztapenak planteatu ahala, talde bakoitzak egoki deritzon txartela altxatuko du, azalpenik eman gabe. Baieztapen guztiak bukatutakoan, talde bakoitzak bere erantzunen arrazoiak aipatuko ditu. Jarduerari bukaera emateko, dinamizatzaileak parte-hartzaileek tailerlean zehar egindako ekarpenak goraiatu eta 14. testua irakurtzeko eskatuko die.

14 Testua

Egiaren eta gezurraren termometroa

Baieztapenak - Erantzunak

Jatorrizko lurraldeen garapena sustatzen laguntzea inmigratzaileen erantzukizuna da. Gezurra: Garapen baldintza egokiak sustatzea jatorrizko lurraldeetako estatuen erantzukizuna da, eta politika egokien bidez bermatu behar dute.

(Ko)garapenaren arloko politika eta esku-hartzeek jatorrizko lurraldeei erreparatu behar diete, nagusiki. Gezurra: Gizaki guztiak jatorrizko eta helmugako gizarteetan integratzea da (ko)garapenaren helburua.

Hiritartasun osoa lortzea eta gauzatzea (ko)garapenaren ardatza da. Egia: Eskubiderik gabe, ez dago garapenik.

(Ko)garapenaren arloko ekintzen bidez, migrazio fluxuak kudeatu eta itzulerak sustatu beharko lirateke. Gezurra: (Ko)garapena ez da garapen lan-kidetzaren atal bat, ezta herrialde igorle eta hartzaileen arteko migrazio fluxuak kontrolatzeko edo kudeatzeko modua ere.

Mugimendu askatasuna nahitaezkoa da (ko)garapena ahalbidetzeko. Egia: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 13. artikulua araberara, “persona orok du joan-etorriak askatasunez egiteko eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzeko eskubidea. Persona orok du edozein herrialdetatik, baita beretik ere, alde egiteko eskubidea”.

Inmigratzaileek bidaltzen duten dirua jatorrizko herrialdeetako garapen tresnarik garrantzitsua da. Gezurra: Migrazio iturri diren herrialdeetan, benetako garapen politikak ezarri beharrean, erantzukizun hori kanpora joandako emigratzaileen esku uzten dute, jatorrizko lurraldearen garapena bultzatzeko bide bakarra haiek bidaltzen duten dirua dela sinestaz. Horrela, Estatuak muzin egiten diote beren erantzukizun publikoari, hau da, garapena bermatzeko betebeharrari.

Inmigratzaileak (ko)garapena bultzatzen jarraitzen dute, lan baldintzak gero eta txarragoak eta gizarte bazterkeria gero eta handiagoa izan arren. Egia: Inmigratzaileek, batik bat, gizarte hartzailearen ekonomia garapenaren aldeko ekarpenak egiten jarraitzen dute, nahiz eta lan baldintza duinik ez izan.

Bibliografía

- Alboan eta Ignacio Ellacuría Gizarte Fundazioa (2011). *El desarrollo que queremos. Visiones desde los colectivos de personas inmigrantes en la CAPV*. Bilbo.
- Alboan eta Entreculturas (2011). *Políticas de control migratorio y de garapen lankidetzaz entre España y África Occidental durante la ejecución del primer Plan África*. Bilbo.
- Garapenerako GKE-en Koordinakundea-Espainia (2011). Migrazioen eta garapenaren inguruko lantaldea. "Documento marco sobre la idea y las prácticas del codesarrollo".
http://fongdcam.org/wp-content/uploads/2011/10/20111017_161047_CODE SARROLLO_castellano_impreso.pdf
- Delgado Wise, Raúl; Márquez Covarrubias, Humberto; Puentes, Rubén (2010). "Elementos para replantear el debate sobre migración, desarrollo y derechos humanos". Migrazio eta Garapenaren Nazioarteko Sarea.
http://rimd.reduaz.mx/secciones_documentos/89111DelgadoMarquezP_uente22102010.pdf
- Gómez Gil, Carlos eta Unzueta Sesumaga, Amaia (2009). *Manual para una mejor intervención en el codesarrollo*, Bilbo, Bakeaz eta Nazioarteko Elkartasuna (Sail Orokorra).
http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/17656/original/Manual_para_una_mejor_intervencion_en_el_codesarrollo.pdf
- Pérez Orozco, Amaia (2010). *Cadenas globales de cuidado ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justo?*, Santo Domingo, UN-INSTRAW.
http://www.mueveteporlaigualdad.org/publicaciones/derechosparaun-regimenglobaldecuidadosjusto_2010.pdf
- Pérez, Amaia.; Paiewonsky, Denise eta García, Mar (2008). *Cruzando fronteras. Migración y desarrollo desde una perspectiva de género*. Santo Domingo, INSTRAW.
<http://www.un-instraw.org/es/ver-documento-detallless/691-cruzando-fronteras-ii.-migracion-y-desarrollo-desde-una-perspectiva-de-genero.html>
- Herrien Ekintza Globalaren adierazpena migrazioari, garapenari eta giza eskubideei buruz. Mexiko Hiria, 2010eko azaroaren 2tik 5erav.
http://rimd.reduaz.mx/pagina/secciones_documentos1?id=8
- Migrazioen eta Garapenaren Nazioarteko Sarea (2006). "Conclusiones de la conferencia sobre Migración y Desarrollo: perspectivas desde el Sur, Bellagio 2006".
http://rimd.reduaz.mx/secciones_documentos/408perspectivas_desde_el_sur.pdf
- Ruiz, Andrea (2009). "La perspectiva transnacional de las migraciones: desafíos e implicaciones prácticas", *Bakeaz koadernoak*, 93. zk., Bilbo, Bakeaz.
<http://www.bakeaz.org/es/publicaciones/mostrat/421-la-perspectiva-t>
- Vicente, Trinidad Lourdes; Ruiz, Andrea eta Unzueta, Amaia (2011). Remesas, género y desarrollo. *Las migraciones colombianas en el País Vasco*. Bilbo, Bakeaz (Sail Orokorra, 21).

II Multzoa

1 Tailerra

Genero berdintasuna (ko)garapen proiektuen plangintzan

Aurkezpena

Tailerra diseinatzeko, (ko)garapenaren alderdi komunitarioari erreparatu diogu, inmigratzaile erakundeak gizartea aldatzeko giltzarri nagusiak direla kontuan hartuz. Gizarte aldaketak “behetik” finkatutako garapen eta integrazio estrategien bidez hezurramituko lirake, hierarkiarik gabeko kultura artekotasunaren ikuspegiari atxikiz eta izaera indibiduala eta kolektiboa uztartuz.

Helburua lortzeko bidean hiru urrats bereizi ditugu, (ko)garapenaren arloko jarduketetan plangintza mota egokiak aukeratzeko beharri eta genero ikuspegiari oinarritutako plangintza parte-hartzailegoen eta eraldatzailegoen abantailei buruzko gogoeta egiteko.

(Ko)garapenaren berezko zenbait ezaugarriak testuinguru bikoitzak sorrarazten eta/edo aktore eta gizarte espazio berriak (mugatzeko zailak) txertatzen dituztenez, garapen proiektuen inguruan plangintza mota tradizionalak egitea bereziki konplexua izaten da. Tailerrak garapen proiektuetan genero ikuspegia sartzeko tresna egoki batzuk aurkezten ditu, (ko)garapenaren eremu bereziak hobeto ezagutzen laguntzen dutelako.

1 Urratsa

(Ko)garapen proiektuen plangintza

Helburua: Genero ikuspegian oinarritutako plangintza parte-hartzaileen garrantzia azpimarratzea.

1 Jarduera

“Aukerako plangintza motak”

Helburua: Genero ikuspegian oinarritutako (ko)garapen plangintza parte-hartzaileak egitearen garrantziaz jabetzea.

Noiz: 1, 2, 3 eta 4 testuak irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 90 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: Parte-hartzaile kopuruaren arabera taldeak osatu eta 3 papelografo eman behar zaizkie. Lehenengoan plangintza hitzak burura zer dakarkien idatziko dute, bigarrenean beste horrenbeste egingo dute plangintza parte-hartzailearekin, eta hirugarrenean, berriz, generoan oinarritutako plangintza parte-hartzailearekin. Ordu-erdi izango dute azalpenak idazteko. Ondoren, 15 minututan zehar elkarren azalpenak entzungo dituzte, eta dinamizatzaileak dinamikaren helburuarekin bat datozen gogoetak azpimarratuko ditu. Hurrengo urratsa 1, 2, 3 eta 4 testuak irakurtzea izango da. 15 minutu emango dituzte horretan. Irakurketa saioa bukatutakoan, dinamizatzaileak talde bakoitzari hiru txartel emango dizkio; txartel bakoitzean hiru plangintzetako baten elementu bereizgarrien bat* dago idatzita. Taldeek txartelak papelografoan ezarri eta zergatia denen aurrean argituko dute, labur-labur (20 minutu).

* Elementu bereizgarrien adibideak:

· Plangintza: helburuak identifikatzea, errealitate desegokiak aldatzea, proiektua.

· Plangintza parte-hartzailea: arazoa identifikatzen parte hartzea, (ko)garapen eragile gisa parte hartzea, gizon-emakumeek beren interesak bideratzeko proposatzen dituzten antolamendu ekimenak sustatzea.

· Genero ikuspegian oinarritutako plangintza parte-hartzailea: emakume eta gizonen arteko desberdintasunezko harremanak aldatzea, emakume eta gizonen arteko desberdin ikusten eta bizitzen dutela onartzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak agerian uztea.


1 Testua

(Ko)garapenaren arloko plangintzak

Eguneroko bizitzan denok egiten ditugu planak gure eginbeharren edo nahien inguruan: helburuak finkatu, helburu horiek lortzeko zereginak zehaztu, zeregin horien denborak eta espazioak mugatu eta gauzatzeko beharrezko baliabideak eskuratzen ditugu. Zerbait hobetzea erabaki eta lortzeko modua aukeratzen dugun bakoitzean plangintza egiten dugu; beraz, “eguneroko esperientzia” da guztiontzat.

(Ko)garapenaren arloko plangintzekin ere beste horrenbeste gertatzen da. Kasu horretan, jatorrizko eta/edo helmugako herrialdeetan aldatu beharreko errealitate desegoki bat edo hainbat identifikatzea izango da plangintzaren abiapuntua. Gizakien garapen integrala ahalbidetzen duten bizi baldintza duinekin bat ez datozen errealitateak aukeratu ondoren, esku-hartzeko estrategia finkatzeari ekin behar zaio. Finkatutako estrategia garatzeko hiru aukera daude: politika, programa edo proiektu bat ezartzea. Herri-administrazioek, adibidez, (ko)garapen politikei buruzko planak egin eta plan horiek programen bidez gara ditzakete. Programetan, hainbat proiektu batera jorratu ohi dira.

Proiektua esku hartzeko mailarik zehatzena eta mugatuena da. Proiektuetan, elkarri lotutako hainbat jarduera eta baliabide koordinatzen dira, aurretiaz aukeratutako biztanleria multzoarekin (ko)garapen helburu jakin bat lortzeko. Proiektu bakoitza geografia esparru batean edo hainbatean gauzatzen da, denbora luzeagoan edo laburragoan. Aipa dezagun, azkenik, proiektuak dinamikoak eta ziklikoak izaten direla. Hurrengo grafikoak plangintzen fase edo aldien arteko lotura logikoak eta tenporalak irudikatzen ditu.



2 Testua

Plangintza parte-hartzailea: onuradunak ala eragileak?

Plangintzak hainbat modutan uler eta egin ditzakegu, (ko)garapenari buruzko ikuspegiaren arabera. Adibidez, onuradunei parte hartzen uztea edo ez uztea erabaki dezakegu. Bi aukera daude: onuradunei prozesu osoan protagonismoa ematea eta iritziak azaltzen eta beren arazo, behar eta potentzialtasunen arabera helburuak eta jarduerak aukeratzen uztea ala plangintza “bulego batean” egitea, onuradunek ezertan ere parte hartu gabe. Emaitzak, noski, desberdinak izango dira.

Bestalde, partaidetza zertan datzan (presentzia, kontsulta, agentzia...) hainbat modutan uler daitekeenez, gure partaidetza ereduari buruzko gogoeta zintzoa egitea eta partaidetza mota horren bidez zer garapen mota sortzen ari garen aztertzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Aipatutako gogoetari ekiteko, lehenik eta behin, abiarazi nahi dugun proiektuaren hartzaileen kokapena edo eginkizuna zein den ikusi behar dugu:

- Proiektuen baliabideak eta zerbitzuak erabiltzea edo onurez baliatzea, besterik gabe. Ez dute izango inolako partaidetza aktiborik.
- Hirugarrenek finkatutako jardueren (ordaindutako lanen edo beste-lakoen) bidez hartuko dute parte.
- Arazoa identifikatzeko urratsen une batzuetan hartuko dute parte (adibidez, barne beharrak edo interesak azaltzen), baina konponbiderik egokienak aukeratzekoan haien iritziri ez zaio jaramonik egingo.

- Gizon-emakumei antolamendu lanetan bete-betean parte hartzeko aukera eta laguntza eskainiko zaizkie, beren interes eta lehentasunak bideratu eta plangintzaren etapa guztietan protagonismo arduratsua izan dezaten. Beraz, (ko)garapenaren benetarako eragile bihurtuko dira.

Partaidetza ereduak identifikatuz, proiektuak helburu dituen gizon-emakumeek nola esku hartu duten jakingo dugu, hau da, onuradun hutsak ala benetako aldaketa eragileak eta beren garapenaren protagonistak izan diren.

3 Testua

Plangintza parte-hartzailea... genero ikuspegiaren oinarritua!

Gizon-emakumeen partaidetza ezinbesteko baldintza da, (ko)garapenaren arloko esku-hartzeen plangintzetan giza eskubideen eta giza garapenaren aldeko konpromisoa barneratu ahal izateko. Dena den, baldintza hori betetzea ez da nahikoa, beste zerbait egiten ez bada: genero harremanen berrikuspen kritikoa, berdintasun parametro berrien arabera birsortu eta berreraiki daitezten.

Oraingoan ere, nola jokatu aukeratu behar dugu.

Plangintza egiterakoan generoari “begiratzen” ez badiogu, ez dugu izango emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunezko botere harremanak identifikatzeko, zalantzan jartzeko eta zuzentzeko inolako aukerarik. Aitzitik, genero ikuspegiari heltzen badiogu, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunezko botere harremanez eta gizon-emakumeen gizarte kokapenen arteko aldeez jabetuko gara. Era berean, desberdintasun horiek bizi baldintzetan erabateko eragina dutela eta (ko)garapena gauzatzeko oztupoak direla egiaztatuko dugu. Aipatutako guztiaren ondorioz, litekeena da arazo berbera emakumeek eta gizonen berdin ez ikustea, eta ezaugarri hori ere gogoan izan behar dugu plangintzak egiterakoan.

Azkenik, ezin dugu ahaztu plangintzetan lehentasunak finkatu behar izaten direla. Oro har, baliabideak urriegiak izaten dira kasuan kasuko errealitate konplexua edo konplexuak aldatzeko jarduketak guztientzat. Beraz, batzuk aukeratu eta beste batzuk bertan behera uzteko beharra sortzen da. Horregatik, lehentasun irizpideetan ere genero ikuspegia sartzea eta

gai estrategikotzat hartzea oso garrantzitsua da; bestela, litekeena da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ez azaleratzea eta zuzentzea. Eta hori sarriegi gertatzen da oraindik.

4 Testua

Zer esan nahi du (ko)garapenaren plangintzan genero ikuspegia txertatzeko?

Genero ikuspegia funtsezkoa da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen kontra borrokatzeko. Bi alderdi uztartzen ditu: analitikoa eta politikoa.

Ikuspegi analitikoa oinarritzeko da emakumeek eta gizonen sexu/genero sistemaren arabera errealitate anitzetan dituzten kokapenen nondik norakoak ulertzeko. Genero azterketari esker, gizonen eta emakumeen partaidetzen arteko desberdintasunak ezagutu ditzakegu hainbat esparrutan: etxean, gizartean, erakundeetan eta mekanismoetan (estatuan, merkaturan, kulturean, enplegu politika eta praktiketan, gizarteratze jardunbideetan...). Horiek guztiak gizon-emakumeen arteko aukera banaketan nagusi diren desberdintasun ereduak islatzen eta iraunarazten dituzte.

(Ko)garapen proiektuen plangintzetan genero azterketari sarbidea ematen badiogu, gure esku-hartzeak ez dira oinarrituko testuinguru jakin bati lotutako aurreiritzietan edo ideietan, benetako informazioan baizik. Aipatzeko da, gainera, aurreiritzi eta ideia horiek erreferente unibertsalak direla eta denok, pertsona eta erakunde guztiok, barneratuta ditugula. Genero azterketak ikuspegi androzentrikoan oinarritutako plangintzen ohiko akats larrietan ez erortzen lagunduko digu, maskulinitasuna gizatasun eredu bihurtzen eta emakumeen errealitate bereziak ezkutuan uzten baitituzte.

Genero ikuspegiaren arabera jasotako eta aztertutako informaziotik abiatuz, azterketa kritikoa ekin ondoren, esku hartzeko proposamen politikoak finkatu beharko ditugu, aldaketen eta berdintasunaren aldeko konpromisoaren (ikus 3. urratsa) bidea urratuz.

2 Urratsa

Zein dira (ko)garapen proiektuen berezitasunak?

Helburua: (Ko)garapen proiektuen plangintzan ikuspegi komunitarioa txertatzeko elementu erabakigarri batzuei buruzko jarraibide praktikoak ematea.

2 Jarduera

“(Ko)garapenaren bideak”

Helburua: Gure helburuen eta erakunde gisa bizitzen ari garen unearen arabera (ko)garapen mota egokia aukeratzearen garrantzia hausnartzea.

Noiz: 5. testua irakurri eta gero.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: 3 talde osatu eta bakoitzari (ko)garapen mota jakin bati buruzko soziodrama edo antzerkitxoa egiteko eskatuko diogu. Saio horren bidez, talde bakoitzak bere (ko)garapen ereduak erakundeetan lantzeko baldintzak eta bi onura edo gehiago adieraziko ditu. 15 minutu izango dituzte saioa prestatzeko, eta gero denen aurrean antzetzuko dute. Ondoren, (ko)garapen mota egoki aukeratzeko erakunde barruko eta kanpoko hainbat faktore kontuan hartzeak duen garrantziari buruzko gogoeta bideratuko dugu.



5 Testua

(Ko)garapen motak

(Ko)garapenaren onurak guztiei helarazteko ikuspegi ireki eta malguari jarraiki, proiektuetako jarduketak jatorrizko edo helmugako gizar-tean edo bietan gauza daitezke. Dena den, (ko)garapen proiektu motari ohikoena honako hauek dira:

- Jarduketak helmugako herrialdean gauzatzen dira nagusiki, jatorrizko herrialdean edo herrialdeetan zenbait ekarpen egin arren.
- Jarduketak jatorrizko herrialdean edo herrialdeetan gauzatzen dira nagusiki, helmugako herrialdean zenbait ekarpen egin arren.
- Jarduketak jatorrizko eta helmugako herrialdeetan aldi berean gauzatzen dira, elementu komun transnazionalen bidez.

Proiektu mota ez da aukeratzen (ko)garapen ikuspegiaren arabera, ikuspegi politikoaren arabera baizik. Batzuetan, erakundeek jarduketa modalitate bat aukeratzen dute hasieran eta gero, arian-arian, gainerakoak gehitzen dizkiote, esparruak hedatuz. Egia esan, jarduketan esparru finkatzeko erabakian era askotako faktoreek izan ohi dute eragina: besteak beste, inmigratzaileen une bitalak eta sumatzen dituzten beharrek, taldearen garapen instituzionalak eta gaitasun teknikoek, sare transnazionalak (helmugako herrialdeko asoziazionismo mailak eta jatorrizko erakundeekiko harremanek, jatorrizko eta helmugako gainerako aktoreekiko loturek) eta erakunde finantzatzaileen interesek, adibidez.

Gaur egun, (ko)garapen proiektuen plangintzak egiterakoan, garapen proiektuetako metodologia berberak erabiltzen dira, (ko)garapenaren ezaugarri bereizgarriak kontuan hartu gabe. Ezaugarri horiek I. Multzoan aipatu ditugu: aktoreen arteko horizontaltasuna eta erantzukidetasuna, inmigratzaile talde antolatuen partaidetza eta nazioez/udalez gaindiko esparruen txer-tapena. Lehen esan dugun moduan, lana korapilatu egiten dute, eta arreta bereziz jorratu behar dira proiektuaren fase guztietan.

Zentzu horretan, azken bi modalitateetan lankidetzak ahalegin handiagoa egin behar izaten da jatorrizko eta helmugako plangintzak uztartzeko, testuinguruak bikoiztu egiten baitira fase guztietan. Gainera, bi herrialdeetako elementu komunak eta proiektu bateratu bakarra finkatzeko sinergiak egoki kokatu behar dira. Ildo horretan, 6. testuak gaiari buruzko zenbait gogoeta eskaintzen dizkigu.

6 Testua

(Ko)garapen proiektuen plangintzen elementu garrantzitsu batzuei buruzko gogoetak

- Hainbat interes, baina (ko)garapenaren inguruko ikuspegi bakarra.

(Ko)garapen proiektuetan hainbat eratako aktore publiko zein pribatuek har dezakete esku, eta litekeena da horien erreferentziatzko irizpide soziokulturalak bat ez etortzea. Dena den, nahiz eta parte-hartzaileen interesak bat ez etorri, guztiek (ko)garapenaren inguruko ikuspegi berbera izatea ezinbestekoa da bidean aurrera egiteko. Horretarako, parte-hartzaileek jarrera irekia hartu eta elkarren planteamenduak ulertzeko gai izan behar dute. Beraz, (ko)garapen proiektua abiarazten eta agendak partekatzen hasi aurretik, ikuspegietan gutxieneko bateratasuna lortu dela egiaztatu behar da beti.

- Lidergoa

I. multzoan adierazi dugun bezala, (ko)garapen ekimenetako lidergoa gaitz korapilatsua da, aktore eta interes ugari uztartzeko beharrezko ondorioz. Inmigratzaile erakundeek beren (ko)garapen proiektuetan benetako lidergoa izateko, aurretiaz baldintza jakin batzuk bete behar dira: inmigratzaileek garapenaren alde egindako ekarpena aitortzea, integrazio prozesuak sustatzea eta lidergo erantzukizunei lotutako gaitasun teknikoak eta antolamendu ahalmenak lantzeko aukera eskaintzea.

- Horizontaltasuna eta erantzukidetasuna.

Parte-hartzaile guztiek lankidetzaren eta erantzukidetasunaren bidea urratzea eta interesen eta espazioen arteko hierarkizazioak bertan behera uztea funtsezkoa da erabat. Hasiera-hasieratik, alderdi guztiei eman behar diegu beren interesak azaltzeko aukera, elkarriketa horizontalaren bidez helburu komunak finka ditzaten. Horrela, esku hartzeko estrategia horizontalak, (ko)garapenaren giltzarriak, ahalbidetzeaz gain, aliantzak indartzea eta prozesuari bidelagun gehiago atxikitzea lortuko dugu, gure

erakundearen izaera bereizgarriari uko egin gabe. Hori guztia are nabarmenagoa da inmigratzaile erakundearen kasuan.

- Inmigratzaileen partaidetza.

(Ko)garapenaren beste ardatz bat inmigratzaileen eta inmigratzaile erakundearen zuzeneko partaidetza da. Proiektuei dagokienez, premiak eta arazoak zehazteko zereginetan eta formulazio, gauzapan eta ebaluazio urratsetan ezinbestez hartu behar dute parte. Esanak esan, inmigratzaile erakunde askoren boluntariora maila handiaren eta garapen instituzional urriaren ondorioz, (ko)garapen ekimenetan parte hartzeko aukerak murriztu egiten dira batzuetan, zenbait ezaugarriengatik: adibidez, gaitasun tekniko eta antolamendu ahalmen bereziak behar direlako.

- Denbora eta erritmoak.

Sarritan, (ko)garapen proiektuei lotutako aktore guztiek ez dute izaten denbora berbera eskaintzerik, eta ezaugarri hori arazo iturri bihurtu daiteke, adibidez, boluntarioraren bidez funtzionatzen duten inmigratzaile erakundeetan. Proiektuetan, beraz, aktoreek zenbat denbora eman dezaketen hartu behar da kontuan, parte hartzeko oztoporik ez ezartzeko. Halaber, aktore bakoitzaren erritmoari ere erreparatu behar zaio kasuan kasuko errealitatean. Inmigratzaile erakundeek dagokienez, ezin dugu ahaztu testuinguru konplexuak dituztela, integrazio eta antolamendu prozesuak mantsoak eta garestiak direla eta ahalegin pertsonal, ekonomiko eta afektibo handiak eskaini behar zaizkiela. Berezitasun horietatik abiatuz, erritmo egokia finkatu eta horrelako prozesuen berezko konplexutasunaren arabera gauzapan epe egokiak ezarri behar dira.

- Espazioak eta transnazionaltasuna.

(Ko)garapen proiektuetan ikuspegi transnazionala txertatzeko, prozesuan zer alderdik parte har dezaketen (jatorrizko eta/edo helmugako gizarteek) eta elkarren artean nolako loturak dituzten jakin behar dugu, aurretiaz. Gainera, indar edo konplexutasun maila handiagoko zein txikiagoko nortasun, esparru eta jardunbide transnazionalen erronka gehigarriak

sorraraz ditzakete (ko)garapen proiektuen plangintzetan. Nortasun transnazional horiek nola jokatzaren duten eta beren sinbolo, gizarte harreman, ideia eta ondasunak dituzten gizarte eremu berri horietan zer gertatzen den aztertzea da kontua, ekonomia eta gizartea aldatzeko prozesuak bideratzeko aukeraz jabetzeko. Ildo horretan, bai jatorrizko bai helmugako herrialdeetan gizarte integratzaileak lortzea izango litzateke helburua.

- Genero berezitasunak eta eragin faktoreak.

1. urratsean adierazitakoarekin bat, gure (ko)garapen proiektuetan genero ikuspegian oinarritutako plangintza parte-hartzaileak ahalbidetzeko, orain arte aipatu ditugun gogoetak banan-banan berrikusteari ekin beharko diogu, proiektuak barne hartuko dituen gizon-emakumeen arteko desberdintasunak ez indartzeko. Gainera, oraingoan ere, generoaren kategoria unibertuala migrazio prozesuaren errealitate bakoitzean eta (ko)garapenari lotutako aktore sarearen taldeetako pertsona bakoitzean modu jakin batean islatzen dela gogoratzea komeni zaigu. Generoaren mundu ikuskeraz da berbera kultura guztietan, eta ikuskera bakoitzak agindu, balio, ideia, aurreiritzi, baimen eta debeku jakin batzuk ezartzen dizkie emakumei eta gizonei. Errealitate horietako eta gero eta tinkoago azaleratzen ari diren eremu transnazioaletako genero identitateak eta harremanak benetan nolakoak diren eta nola jokatzaren duten ulertzeko, gure aurreiritzi eta estereotipoak bertan behera uzten eta ezer ere ziurtzat ez jotzen saiatu behar dugu.

Azkenik, errealitate bakoitza baldintzatzen duten faktore onuragarri eta kaltegarriak zein diren jakitea komeni zaigu, gure (ko)garapen proiektuaren bidez genero desberdintasunak zuzentzeko aukeraz jabetzeko.

3 Jarduera

“Aniztasuna eta topaguneak, plangintzaren abiapuntuak”

Helburua: Proiektuen plangintzetan (ko)garapenaren elementu batzuk kontuan hartzeko beharri buruzko gogoeta egitea.

Noiz: 6. testua irakurri eta gero.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: 4 talde osatu eta bakoitzari 6. testuko elementu bat eman behar zaio. Taldeek 15 minutu izango dituzte elementua 5. testuko hiru modalitateetako bakoitzaren bidez lantzeko. Elementu berak modalitate bakoitzean nolako garrantzia duen aztertzea da helburua. Emaitzak denon aurrean aurkeztuko dituzte, kanta, ipuin, antzerkitxo, marrazki, poesia... baten bidez. Jarduerari bukaera emateko, dinamizatzaileak elementu bakoitzak modalitate bakoitzean duen garrantzia azpimarratuko du.

3 Urratsa

Genero azterketa (ko)garapen proiektuetan

Helburua: (Ko)garapen proiektuen plangintzetan genero azterketa txertatzeko tresnarik hedatuenetako batzuk labor-labor aurkeztea.

4 Jarduera

“Ez badut galdetzen, ez dut jakingo zer ari den gertatzen. Ez badakit zer ari den gertatzen...”


Helburua: Proiektuen testuinguruak egoki ezagutzeko jarduera profilen tresna erabiltzeko beharraz hausnartzea.

Noiz: 7. testua irakurtzen hasi aurretik eta 8. testua irakurri ondoren.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: 8 minututan gaiari buruzko gogoeta egingo dute, banaka. Horrela, proiektu jakin bati lotutako testuinguruan edo testuinguruetan emakume eta gizonek zer, noiz eta non egiten duten eta batzuen eta beste lanak zenbat baloratzen diren ez jakitearen ondorioez hausnartuko dute. Gogoetari ekin aurretik, parte-hartzaile bakoitzari kolore desberdineko bi txartel eman behar zaizkio: batek ondorio positiboak irudikatzen ditu, eta besteak negatiboak. Banakako hausnarketa bukatutakoan, dinamizatzaileak denen aurrean azaltzeko eskatuko die. Parte-hartzaile bakoitzak dagokion txartela altxatuko du. Negatiboa bada, guztiek batera hauxe esango dute: “Ez badut galdetzen, ez dut jakingo zer ari den gertatzen. Ez badakit zer ari den gertatzen...” Gero, ondorioak eta arrazoiak aipatuko dira. Norbaitek txartel positiboa aukeratzen badu, dinamizatzaileak oker dabilela esan eta ulertzen lagunduko dio. Azkenik, errealitateen ezaugarriak jakinekotzat jotzearen arriskuei buruzko gogoeta egingo da.



7 Testua

Genero azterketak egiteko aukerako tresna batzuk

Garapenaren arloan tresna ugari diseinatu dira plangintzetan genero azterketari sarbidea ematen laguntzeko, eta oso baliagarriak eta erabilgarriak dira, era berean, genero ikuspegian oinarritutako (ko)garapen proiektuen plangintzak egiteko. Hizpide ditugun tresnetako batzuk labur-labur aipatzen (8., 9., 10. eta 11. testuetan) hasi aurretik, zenbait ezaugarri azpimarratzea komeni da:

- Emakumei eta gizonen buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko erabili behar dira, generoa kategoriatan erlazionala baita.
- Plangintzaren fase guztietan erabiltzea da egokiena.
- Proiektuari lotutako testuinguru guztietan (jatorrizkoetan eta/edo helmugakoetan) erabili behar dira.
- Tresnen erabilerari dagokionez, plangintzaren arduradunaren edo arduradunen esku utz daitezke edo, bestela, informatzaileei ere erabiltzen irakats dakieke, azterketa prozesua kontrolatzeko aukera izan dezaten.

8 Testua

Emakumeen eta gizonen jardueren profila. Nork zer, noiz eta non egiten du?

Emakume eta neskatok eta gizon eta mutikok eguneroko bizitzan zer jarduera egiten dituzten eta jarduera bakoitza zenbat denboratan, noiz eta non egiten duten jakiteko erabiltzen da tresna hori.

Testuinguru guztietan argi eta garbi ikusten da emakume eta gizonen zeregin desberdinak egiten dituztela, sexuaren arabera lan banaketan ondorioz.

Genero bakoitzari berarentzat ustez egokiak diren espazioak eta lanak ezarri ohi zaizkio, eta horien balorazioen eta aitortzen arteko desberdintasunak ere izugarriak dira, noski. Genero azterketa errazteko, honako hiru lan maila hauek berezi ditugu:

- Ugalketa lanak: Etxea eta etxeokoa zaintzarekin eta mantentzearekin zerikusia duten zereginak (haurdunaldia, haurrak eta mendekotasunak dituzten zaintzea, janaria prestatzea, ura eta energia iturriak bilatzea...) eta gizarte ordena iraunarazteko ardurak (kultur transmisioa eta seme-alabak gizarteratzea).
- Ekoizpen lanak: Nolabaiteko ordaina (espezietan, dirutan edo zerbitzuen truke) duten zereginak. Adibidez, inoren kontura lan egitea.
- Komunitate lana: Tokian tokiko komunitateko kultura, alderdi espirituala edo antolamendua garatzen laguntzen duten eginkizunak (gizarte ekimenak, ospakizunak, familien eta komunitateen ongizatea areagotzeko ekintzak).

Ugalketa eta komunitate arloko lanak naturaltzat jotzen dira, eta, truke baliorik ez dutenez, egoera azterketetan eta beharren balioespenetan oro har ez dituzte aitortzen eta aintzat hartzen. Askotan, ugalketa eta komunitate arloko zeregin horiek egiten dituztenek ere beren lanari ez diote ematen balio berezirik. Horregatik, emakumeen lan gehienak ezkutuan geratzen dira.

Zer aukera eskaintzen dizkigu tresna horrek?

- Emakumeen benetako lan zama uzten du agerian. Izan ere, ugalketaren esparruko zereginak ez ezik, ekoizpen eta komunitate arlokoak ere egiten dituzte.
- Emakumeen eta gizonen lanen arteko mendekotasunak azaleratzen ditu. Horrela, adibidez, migrazio prozesuek sorrarazitako errealitate berrien ondorioz etxe edo gizarte arloko eguneroko lan kantitatean izan diren doikuntzen nondik norakoak ulertuko ditugu.
- Proiektuak emakume eta gizonen lan zemetan izango duen eragina aurretiaz neurtzeko eta planteatutako jarduerak egiteko denborarik eta malgutasunik ba al dugun jakiteko aukera emango digu.

5 Jarduera

“Aldaketaren alde lan eginez”

Helburua: Beste urrats bat emateko beharraz jabetzea. Genero azterketaren bidez lortutako ezagutzak genero desberdintasunak zapuzteko erabili behar direla jakitea.

Noiz: 9, 10 eta 11. testuak irakurri eta gero.

Iraupena: 75 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: Taldeak osatu eta proposamen sortzaileak egiteko eskatuko zaie. Dinamizatzaileak edo parte-hartzaileek (erakunde gisa duten esperientzian oinarrituz) proposatutako (ko)garapen proiektuaren bidez, emakumeen kokapenak hobetzeko moduak bilatu behar dituzte. Taldeen proposamenetan, gainera, ezinbestekoa izango da baliabide eta onuren kontrolarekin zerikusia duten elementuak azaltzea. Talde bakoitzak 20 minutu izango ditu bere proposamena prestatzeko, eta, gero, denen aurrean aurkeztuko du. Talde guztien aurkezpenak bukatutakoan, jarduerari amaiera emateko, genero ikuspegiaren alderdi analitikoak eta politikoa ekarriko dira gogora.

9 Testua

Eskuragarritasuna eta kontrola. Nork eskura eta kontrola ditzake proiektuen baliabideak eta onurak?

Baliabideak behar-beharrezkoak dira proiektuetan proposatutako jarduerak egiteko eta aurreikusitako helburuak lortzeko. Baliabideak proiektuak gauzatzeko bitartekoak dira, eta onurak, berriz, bitartekoak erabiliz lortzen diren emaitzak. Baliabideak eta onurak era askotakoak izan daitezke: produktiboak, sozialak, kulturalak, politikoak edo barne mailakoak, eta denbora eta mugikortasuna ere multzo horretakoak dira.

Esperientziaren poderioz dagoeneko badakigu proiektuek ez dutela izaten eragin berbera emakumeengan eta gizonengan. Horren arrazoia ulertzeko, erabilera eta kontrol kontzeptuak baliabideekin eta onurekin lotu ditzakegu. Eskuragarritasunak baliabide jakin bat behar edo interes pertsonal eta kolektiboetarako erabiltzeko aukera adierazten du, eta kontrolak, berriz, baliabide horren erabilerari buruzko erabakiak hartzeko aukera.

Zer aukera eskaintzen dizkigu tresna horrek?

- Partaidetza eta kontrola parekatzeko arriskuan ez erortzea, ez baitira gauza bera. Adibidez, proiektu batek emakume talde jakin batentzat berriazko onurak aurreikusteak ez du esan nahi emakume horiek lortutako onurak kontrolatzeko aukera izango dutenik.
- Proiektu bakoitzari lotutako testuinguruko edo testuinguruetako botere desorekak agerian uzteko aukera ematen du.
- Emakume eta gizonen arteko bidezko botere banaketa bermatzeko neurri zuzentzaileak ezartzen laguntzen du. Tresna erabiliz, emakumeek baliabideak, onurak eta, oro har, beren bizitzan eragina duten erabakiak kontrolatzeko ahalmen handiagoa izan behar dutela egiaztatuko dugu.

Boterea banatzeko eta erabiltzeko moduak zalantzan jartzen direnean, gatazka sortzen da beti. Beraz, genero ikuspegiaren oinarritutako plangintzak konponbide konstruktiboak bilatu eta eragindako aldean arteko elkarriketa eta negoziazioa sustatu behar ditu.

10 Testua

Behar praktikoak eta genero interes estrategikoak. Zer behar dute gizon-emakumeek beren bizi baldintza materialak hobetze-ko? Eta generoen arteko harresia erazteko?

Behar praktikoak zehazten hasi aurretik, emakume eta gizonen genero ro-lekin zerikusia duten premiei erreparatuko diegu, abiapuntutzat hartzeko. Horrela, adibidez, emakumei ugalketaren arloko erantzukizunak ezarri ohi zaizkienez, lehen eskaria etxebizitzarekin, elikadurarekin, osasunarekin, urarekin... zerikusia duten eguneroko betebeharrak betetzea izango da, ardura horiek dakartzaten egiturazko desberdintasunei muzin eginez. Izan ere, behar praktikoak asetzeke daudenean ia ezinezkoa da interes es-
trategikoak bideratzeari ekitea.

Genero interes estrategikoen helburua gizarte hierarkietako genero harre-
siak eraztea da. Interes horiek zein diren jakitea behar praktikoak finka-
tzea baino korapilatsuagoa da, askotan emakume eta gizonen ere kostatu
egiten baitzaie argi bereiztea.

Zer eskaintzen digu tresna horrek?

- Lanaren sexu banaketak emakume eta gizonengan eragiten dituen on-
dorioak eta ezartzen dizkien beharrak eta interesak ezagutzeko aukera.
- Behar praktikoei eta genero interes estrategikoei egoki erantzuteko mo-
duko plangintzak egiteko eta desberdintasun iraunarazten dituzten egitu-
ra, mekanismo eta erakundeetan esku hartzeko aukera.

11 Testua

Baldintzak eta kokapena

Bada behar praktikoekin eta interes estrategikoekin zuzeneko lotura duen
beste tresna bat: baldintzen eta kokapenaren azterketa.

Aipatutako tresnaren bidez, batetik, gizon-emakumeen bizi baldintza
zehatzak aztertzen dira, generoa ezaugarri erabakigarria dela kontuan
hartuta, orain arte ikusi dugun bezala. Generoak emakumei eta gizonen
erantzukizun, jarduera eta espazio desberdinak ezartzen dizkienez, ba-
tzuen bizi eta garapen aukerak murriztu eta besteenak handitu egiten dira.

Hizpide dugun tresnak, bestetik, gizon-emakumei genero harremanetan
dagokien kokapenaren berri ematen digu. Gizartea, politika, ekonomia eta
kultura hartzen ditu kontuan, kokapen horiek zehazteko. Tokian tokiko kul-
tur ñabardurak gorabehera, emakumeen kokapenak, oro har, gizonekiko
mendekotasuna du ezaugarri.

Baldintzak eta kokapena elkarri loturik daude. Emakumeen eta gizonen
arteko kokapen desberdintasunen ondorioz, lehenengoen bizi baldintzak kaska-
rragoak direnez, gizonen kokapen berberak lortzeko aukerak erruz murriz-
ten zaizkie. Horregatik da hain garrantzitsua (ko)garapen proiektuetan bi
alderdiak jorratzea.

2 Tailerra

Genero berdintasuna. Helburu hori gure proiektuetan sartu dugu jadanik... Eta gure erakundeetan?

Aurkezpena

Tailerraren bidez, erakundeen baitan generoa zertan den azaltzen eta generoaren diagnostikoa egiteko beharraren inguruko kontzientzia pizten saiatuko gara. Aipatutako diagnostikoak genero desberdintasunak gure erakundeetan nola islatzen diren erakutsi eta gizarte aldaketan eragile aktibo bihurtzeko zer egin behar dugun jakiten lagunduko digu. Erakundeok, izan ere, proiektuen eta barne dinamiken bidez sustatu behar ditugu gizarte aldaketa horiek.

Erakundeetan genero ikuspegia instituzionalizatzeko prozesua oso konplexua da. Tailerrean landutako edukien xedea ez da konplexutasun hori bere osotasunean islatzea, aipatutako prozesuak ezartzeko beharrari buruzko gogoeta pertsonala eta instituzionala sustatzea baizik.

1 Urratsa

Genero berdintasuna erakundeetan, gauzatzeke oraindik

Helburua. Genero ikuspegia (ko)garapen proiektuetan eta erakundeetan ezartzeko beharraren arrazoiak ulertzea.

6 Jarduera

“Koka zaitetz”

Helburua: Generoaren gaiak erakundeetan duten garrantziari buruzko eztabaida abiaraztea.

Noiz: 12. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 90 minutu.


Nola: Taldean.

Metodologia: Parte-hartzaile guztiak gela erdian kokatuko dira. Dinamizatzaileak generoak erakundeetan duen garrantziari buruzko 4 baieztapenetako* bat irakurriko du. Baieztapenen zerrenda jarduerari ekin aurretik idatziko du. Dinamizatzailearen esaldia entzundakoan, parte-hartzaile bakoitza gelako hiru karteletako baten aurrean kokatuko da. Karteletan, hain zuzen, baieztapenei buruzko jarrerak azaltzen dira: erabat ados, nahiko ados edo batere ados. Taldeek 7 edo 10 minutu inguru izango dituzte aukeratutako jarrerari buruzko hausnarketa egiteko eta arrazoiak pentsatzeko. Ondoren, denen aurrean azalduko dituzte. Baieztapen bakoitzarekin dinamika berbera errepikatuko da, zerrenda bukatu arte. Azkenik, erakundeetan berdintasuna sustatzen lagun dezaketen jarrerak aipatu eta 12. eta 13. testuak irakurtzeari ekingo zaio.

* Baieztapenak:

· Gizonek zuzendutako erakundeak arrakastatsuagoak dira, lidergo mota egokiagoetan oinarritzen direlako.

- Emakumeek askotan ama eta/edo zaintzaile erantzukizunak aitzakiatzat hartzen dituzte lanik ez egiteko.
- Erakundeetan ez dago desberdintasunik; etxeetan bai, ordea.
- Emakumeek nahiago dute oinarrizko zereginetan aritzea, erantzukizunek beldurra ematen dietelako.



12 Testua

Genero berdintasuna erakundeetan

Azken urteotan nolabaiteko aurrerapausoak eman dira (ko)garapen proiektuetan genero ikuspegia txertatzeko bidean, aurreko tailerrean jorratu dugun helburuan, hain zuzen. Hori ez da harritzekoa, (ko)garapen proiektuak bultzatzen dituzten erakundeetako idearioetan jaso ohi diren konpromisoak kontuan hartuta: giza garapenaren eta garapen iraunkorraren, giza eskubideen eta gizon-emakumeen arteko berdintasunaren alde jardutea, besteak beste. Esanak esan, programa eta proiektuen bidez sustatutako konpromiso horiek erakundeetan ez dirudi hain argi islatzen direnik, ageriagoko edo ezkutuagoko oztopoak direla eta, zaila edo ezinezkoa delako barne dinamika bidegabeak berrikustea eta ezeztatzea eta, beraz, genero ikuspegia benetan ezartzea.

Genero desberdintasunak “kanpo” arazoak (proiektuei lotutako gizartee-takoak) iruditzen zaizkigu, nonbait, eta ez gara konturatzen erakundeen baitan ere badagoela zer konpondu. Erakundeak inolako genero bazterkeriarik gabeko bidezko sistemak dira?

Galderari erantzun aurretik, bi ezaugarri gogoraraztea komeni zaigu:

- Erakundeetako kideak ere gizarteko genero baldintzen mende daude, eta horien jarduera, sinesmen eta portaerek erakunde barruan eta kanpoan dute eragina. Alderdi pertsonalak eta instituzionalak elkar baldintzatzen eta elikatzen dute.
- Erakunde guztien lurraldeetako gizarte, politika eta ekonomia egituretan desberdintasunak dira nagusi. Ondorioz, desberdintasun horiek erakundeen baitan ere izaten dute oihartzuna.

(Ko)garapenaren arloko erakundeetan tokian tokiko gizarteko genero harremanen arteko desberdintasunak islatzen dira, neurri handiagoan edo txikiagoan. Beraz, generoak baldintzatu egiten ditu, nola edo hala. Errealitate hori onartzea aldatzen hasteko lehen urratsa izango da.

13 Testua

Aldatzeko arrazoiak

(Ko)garapenaren arloko erakundeek -beren balio bereizgarri jarraiki-barne dinamika diskriminatzaileak zalantzan jarri eta aldatu egin behar dituzte, batik bat erabakiak hartzeko gaitasunari eta baliabideak eta boterea eskuratzeko eta kontrolatzeko ahalmenei dagokienez.

Barruko genero desberdintasunak aldatzeko eginkizunari bete-betean heltzen ez dieten erakundeek ez dute beren helburuak lortzerik izango, eta, gainera, desberdintasun horiek ekimen guztietan, baita proiektuetan ere, islatuko dituzte. Bestela esanda: erakundeen barne egituretan, jardunbideetan eta sinesmenetan genero desberdintasun oro zapuztea ezinbestekoa da, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko eta bizi baldintza hobetzeko ekintzen bidez emaitza positiboak lortu ahal izateko. Gainera, irizpide bikoiztasunak nabarmendu egiten dira, lehenago edo geroago, eta erakundeen irudia eta sinesgarritasuna kolokan geratzen dira azkenean.

7 Jarduera

“Gure erakunde ideala”

Helburua: Genero ikuspegia txertatzen duten erakundeen berezitasunik nabarmenenak ezagutzea.

Noiz: 14. testua irakurri eta gero.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Banaka eta taldean.

Metodologia: Parte-hartzaile bakoitzak 14. testua irakurriko du, 5 minututan. Ondoren, lau laguneko taldeetan, erakunde idealen 5 alderdi (gutxienez) zehaztuko dituzte. 20 minutu geroago, talde bakoitzak bere ondorioak denen aurrean azalduko ditu. Dinamizatzaileak taldeek aipatutako ezaugarri bakoitza hiru zutabeko (maila politiko, egiturazkoa eta kulturala) matrize batean kokatuko du. Azkenik, 15. testua irakurriko dute.

Azkenik, 15. testua irakurriko dute.

14 Testua

Erakundeen hiru alderdi edo mailak eta genero berdintasunaren aldeko konpromisoa

Erakundeak sistema konplexuak dira, tamaina edo garapen instituzionala edonolako izanik ere. Hiru maila bereiz ditzakegu:

Maila politikoa

- Erakunde bakoitza zertarako edo zergatik sortu den. Jarduketan oinarritzko balio nagusiak, (ko)garapenaren bidez sustatutako ikuspegi politikoak, helburuak eta aurrekontuak hartzen ditu barne.

Egitura/prozedura maila

- Antolamenduaren egitura (non eta nola kokatzen diren gizon-emakumeak eta zer zeregin ezartzen zaizkien) eta funtzionamendu jardunbideak eta arauak (lanak nola planifikatu eta antolatu, zer koordinazio mekanismo erabili, erabakiak hartzeko modua etab.).

Maila kulturala

- Erakundeko kideek partekatzen duten sinesmen eta balio multzoa, idatzi gabeko arauen eta erakundearen “nortasunaren” ardatza.

Genero desberdintasunak hiru esparruetako bakoitzean islatzen dira, neurri handiagoan edo txikiagoan. Beraz, erakundeek desberdintasun guztiak errotik ezeztatu behar dituzte, barne dinamiken bidez gizarte aldaketen eragile bihurtu ahal izateko.

Dena den, sustatu nahi diren aldaketen koherentzia bermatzeko, erakunde bakoitzaren ikuspegi orokorra eta mailen arteko loturak gogoan izatea gomendatzen dugu.

2 Urratsa

Erakundeetan genero berdintasuna sustatzeko barne aldaketa

Helburua: Erakundeek eta erakundeetako kideek genero berdintasuna sustatzeko barne aldaketak egiteak zer esan nahi duen ulertzea.

15 Testua

Erakundeen genero berdintasuna sustatzeko barne aldaketak: zer eta zenbateraino

Erakundeetan jardunbide diskriminatzaileak ezeztatze aldaketak egiteko beharra aipatzen ari garenez, argi utzi nahi dugu kontua ez dela gure erakundeko kide batek edo hainbatek unean uneko edo aldizkako ekimen boluntaristak gauzatzea, gurutzada pertsonalak balira bezala.

Prozesu iraunkorra ari gara planteatzen. Gure erakundeak desberdintasuneko genero harremanak eraldatzeko hartu duen konpromisoa eguneroko jardunari lotutako esparru guztietan hezuramaitzea eta islatzea da helburua: politiketan, antolamendu egituretan, prozeduretan eta lan eta harreman kulturalan, hau da, bere izaeraren ezaugarri bereizgarri guztietan. Jokabide horri denboran zehar eusten badiogu, jarraipena eta ebaluazioa ere eginez, genero ikuspegia instituzionalizatzeko asmoa egia bihurtuko da.

Aipatutako helburua lortzeko benetako konpromisoa hartzen duten erakundeek energia eta baliabide egokiak (bai giza baliabideak, bai tekniko, finantzario eta denborazkoak) erabili beharko dituzte, prozesuan zehar sortutako premiei erantzuteko. Hori guztia bideratzeko, ezinbestekoa da zuzendaritzako kideek prozesuaren aldeko apustu garbia egitea. Zorionez, horrelako ekimenetarako laguntzak ematen dituzten erakunde publikoak gero eta gehiago dira⁴.

⁴ Adibidez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (http://www.elankidetz.euskadi.net/x63-contaysu/es/contenidos/ayuda_subvencion/gba_2011/es_gba_2011/gba_2011.html)

8 Jarduera

“Alde eta kontra”

Helburua: Erakundeetan genero ikuspegia barnerako erabakiaren ondorioz sor daitezkeen arazoan konponbideak bilatzea.

Noiz: 15. testua irrarri ondoren eta 16. testua irakurtzen hasi aurretik.

Iraupena: 75 minutu.

Nola: taldean.

Metodologia: Lau laguneko taldeak osatu behar dira. Erakundeetan genero berdintasunaren aldeko barne dinamikak sustatzeko erabakiak berekin ekar ditzakeen ondorio positibo eta negatiboen zerranda idatziko dute, 20 minututan. Ondoren, talde bakoitzak bere zerranda denen aurrean azalduko du. Azkenik, dinamizatzaileak ondorio negatiboak (aurreiritziak, erresistentziak, oztopoak, beldurrak...) genero ikuspegian oinarrituz irakurtzeko eta denen artean konponbideak (argudioak, ekimenak...) bilatzeko eskatuko die. Jarduerari bukaera emateko, 16. testua irakurriko dute.

16 Testua

Nola egin behar da?

Ez dago errezeta bakar unibertsalik. Erakunde bakoitzak bere errealitatearen eta esperientzien arabeko prozesu estrategikoa diseinatu behar du, aldatu beharreko alderdiak eta generoa instituzionalizatzeko moduak finkatzeko. Baina hizpide dugun arloko aditu gehienen ustez, lehen aipatutako hiru mailetako bakoitza zeharka eta koordinaturik lantzea nahitaezkoa da kasu guztietan. Horretarako, lehenik eta behin, genero generoaren diagnostikoa egin behar da, eta, gero, erakundeetan genero berdintasuna sustatzeko aldaketak proposatu.

Gogoeta edo eraldaketa prozesu parte-hartzaile horren aldeko apustuak abantaila ugari dakarzkigu, hala nola:

- Erakunde bakoitzaren interesak eta beharrak kontuan hartzea.
- Aldaketa iraugarriak egitea.
- Balizko erresistentzietan erantzuteko aukera.

Azken alderdiari dagokionez, horrelako prozesuetan normala izaten da gatazka eta beldurrak sortzea, erakunde barruko genero ordena eta emakume eta gizonen arteko botere harremanak zalantza jartzen hastea mehatxutzat jo dezaketelako ordura arte egoeraren onurez baliatu direnek.

Horregatik, erakundeak aurretiaz zenbait arrazoi motibatzaile prestatzea da egokiena, erresistentziak edo zalantza bideratzeko. Adibidez:

- Barne arrazoiak (barruko desberdintasun egoeren inguruko kezka eta zuzentzeko asmoa, pertsonen lehentasuna eman nahi izatea, barne giroa hobetzeko gogoia etab.)
- Kanpo arrazoiak (genero berdintasunaren arloko gaien estatu mailako eta nazioarteko legitimazioa, administrazio publikoen eta erakunde finantzatzaileen eskakizunak, GGKEen jokabide kodeekiko konpromisoa etab.).

9 Jarduera

“Zer gertatzen da gure etxean?”

Helburua: Erakundeen barne errealitateari buruzko genero azterketa egitearen garrantziaz hausnartzea.

Noiz: 17. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Iraupena: 90 minutu.

Nola: Taldean.

Metodologia: Erakunde bereko lau kidez osatutako taldeak egin eta 40 minututan galdera batzuei erantzuteko eskatuko zaie*. Gero, erantzunak denen aurrean azaldu ondoren, aldatu beharreko alderdiei buruzko diagnostiko egokia egitearen garrantzia azpimarratzera bideratuko elkarriketa. Azkenik, 17. testua irakurriko da.

* Galderak:

- Nolakoa da gure erakundearen egitura?
- Emakumeek eta gizonak ordezkaritza bera dute zuzendaritzan eta erabakiak hartzeko guneetan?
- Ba al dago kontratupeko langilerik? Zenbat emakume eta zenbat gizon daude kontratatuta?
- Ba al dago boluntarioirik? Zenbat emakume eta zenbat gizon? Zer espero dugu boluntarioengandik? Horien lanak ba al du aitorpenik? Ba al du parte hartzeko eta proposamenak egiteko aukera?
- Gure erakundeak sexu jazarpen egoeraren bat sortuz gero, jakingo genuke zer egin?

17 Testua

Erakunde bakoitza mundu bat delako... nork bere genero diagnostikoa egin behar du!

Generoaren diagnostikoa errealitate jakin bati buruzko genero azterketan oinarritzen da, eta bertako emakume eta gizonen arteko botere harremanen ezaugarriak uzten ditu agerian. Gure erakundearen diagnostikoa egiteko, beraz, maila bakoitzean lortu beharreko informazioak garrantzitsuena zein den jakitea komeni zaigu, genero azterketari ekin ahal izateko.

Maila politikoa

Adibidez, galdera hauek egin diezazkiokegu geure buruari:

- Nola azaltzen da genero berdintasuna erakundearen misioan, ikuspegi estrategikoan, estatutuetan eta (ko)garapenari buruzko ikuspegiari?
- Erakundearen ba al dago generoari buruzko gogoeta esparrurik? Eta genero politikarik?

Zuzendaritza taldea genero ikuspegia barneratzeko zer egiten ari den aztertzea ere interesgarria da (lagundu egiten duen, baliabideak ematen dituen etab.).

Egitura/prozedura maila

Erakundearen egituraren informazioa (organigrama eta plantilla mota) sexuaren arabera jaso, langileak aukeratzeko eta sustatzeko prozedurak berrikusi eta, besteak beste, ordainketa eta prestakuntza politikak aztertu behar dira. Hainbat galdera egingo dizkiogu geure buruari. Adibidez:

- Nola daude kokatuta emakumeak eta gizonak erakundearen egiturari? Zer erantzukizun mota dituzte?
- Nork aukeratzen ditu kide berriak (kontratutako langileak, kanpo la-

guntzak edo boluntarioak)? Zertan oinarrituz?

Maila kulturala

Erakundeko kideen jarrera, sinesmen eta portaeren inguruko informazioa aztertu behar dugunez, besteak beste, galdera hauek egin diezazkiokegu geure buruari:

- Zer bide erabiltzen ditugu kideak erakundearen sozializatzeko?
- Zer hizkuntza mota erabiltzen dugu erakundearen?
- Zer rol eta erantzukizun jotzen ditugu egokitzat genero bakoitzarentzat?

10 Jarduera

“Berdintasunerako bidean aurrera, urratsez urr”

Helburua: Erakundeak genero berdintasunaren alde hartutako konpromisoa gauzatzeko ekintza eraldatzaileak maila z maila finkatzea.

Iraupena: 60 minutu.

Nola: Banaka eta taldean

Noiz: 18. testua irakurtzen hasi baino lehen.

Metodologia: Parte-hartzaile bakoitzari 3 txantilo (maila bakoitzeko bat) eman behar zaizkio; 7. jardueran aipatutako erakunde ideala sortzeko urratsak irudikatzen dituzte. 15 minuturen buruan, dinamizatzaileak proposamenak ozenean irakurtzera gonbidatuko ditu, baita txantilo bakoitza dagokion lekuan kokatzera ere, papelografo batean. Bertan, 3 kolorekin puzzle bat marraztuko da, non berdintasunarekin ardura duten erakundearen 3 mailak irudikatuko dira. Parte-hartzaileek txantiloak ezarri ahala, dinamizatzaileak galderak egin eta eztabaida suspertuko du. Azkenik, 18. testua irakurriko dute.



18 Testua

Erakundeetan genero berdintasuna sustatzeko aldaketak: gomendio batzuk

Generoaren diagnostikoak gure erakundearen benetako errealitatea argi eta garbi utziko digu agerian, desberdintasunak eta desberdintasunen jatorrizko mekanismo eta dinamikak azaleratuz. Ondoren, zer eta nola aldatu erabakiko dugu, horretan ere erakunde bakoitzak bere proposamenak egin behar baititu.

Maila politikoa

Genero berdintasunaren aldeko konpromisoa (ko)garapenari buruzko ikuspegi politikoetan txertatzea eta gure erakundearen helburuetan berariaz jasotzea da lehen urratsa. Erakunde batzuek, urrutiago iristeko nahiak eraginda, "genero politika" finkatzen dute, eta, besteak beste, genero ikuspegi barneratzeko estrategia txertatzen dute. Edozein bide hartzen dela, laguntzak eta baliabideak nahitaezkoak izango dira.

Egitura/prozedura maila

Egiturak orekatzeko eta jardunbide berriak finkatzeko proposamenak egin beharko genituzke, gure erakundearen generoa instituzionalizatzeko bidean aurrerapausoak emateko. Adibidez, generoari lotutako gaien inguruko prestakuntza politika ezar dezakegu, pizgarri eta guzti.

Hona hemen kontuan hartu beharreko bi ezaugarri:

- Generoari lotutako gaien inguruko prestakuntzari jarraikortasuna ematea komeni da, egun bateko tailerrak antolatu beharrean. Gainera, egituraren esparru guztietako kideek egin beharko lukete, erakunde mailakoa izan dadin.
- Erakundeak ezagutza eta gaitasun berrien aplikazio praktikoa ahalbidetu eta balioetsi behar du.

Maila kulturala

Gure erakundearen feminotasunaz eta maskulinitasunaz ditugun sinismen, iritzi eta jarrerak genero harremanetan duten eragina oinarri hartuta, eragin horietaz jabetzeko edo kontzientzia pizteko prozesuak izango dira aldaketen xede nagusiak.

Egitura mailari dagokionez, prestakuntza emateko beharra nabarmendu dugu. Maila kulturalaren esparruan, aldiz, garrantzitsuenak ez da ezagutza teknikoak geureganatzea, erakundeko kide guztion jarrerak eta portaerak aldatzea baizik. Horrela, banakako eta elkarren arteko gogoetatik abiatuz, gure erakundearen nagusi den genero ordenaren ezaugarriez, mugez eta kostuez jabetzea izango da lehen urratsa, eta, ondoren, benetako genero berdintasuna sustatzeko proposamenak egingo ditugu.

Bibliografía

- Aguilar, Lorena. (1999). *Lo que comienza bien termina mejor: elaboración de propuesta con enfoque de género*. Serie Hacia la Equidad. UICN
- Alcalde González-Torres, Ana y López Méndez, Irene (2004). *Guía práctica para la incorporación de la igualdad entre mujeres y hombres en los proyectos de la Cooperación Española*. Ministerio de Exteriores. SECIPI.
<http://www.femiteca.com/IMG/pdf/AECl.pdf>
- Bastardes, Clara y Franco, Laia (2006). *Estudio-diagnóstico: la perspectiva de género en el trabajo de las ONGD catalanas*. Federació Catalana d'ONG per al Desenvolupament, 2006.
www.nodo50.org/mujeresred/IMG/pdf/fcongnd.pdf
- García, Adela (2009). *Género y desarrollo humano: una relación imprescindible*. Campaña Muévete por la igualdad, es de justicia.
www.redinternacionalepd.org/publicaciones/genero_desarrollo.pdf
- González, Lara (2007). *Guía para la gestión de proyectos de cooperación al desarrollo*. Universidad de Antioquia. Hegoa.
<http://www.kalidatea.org/kompartiendo/KomparteExperiencias/articulos/1.Guia%20para%20la%20gestion%20de%20proyectos.%20Lara%20G..pdf>
- López, Irene y Sierra, Beatriz (2000). *Integrando el análisis de género en el desarrollo*. Manual para técnicos de cooperación. IUDC/UCM.
- Murguialday, Clara; Vázquez, Norma y González, Lara (2008). *Un paso más: evaluación del impacto de género*. Col·lecció Cooperació.
www.ucm.es/centros/cont/descargas/documento26621.pdf
- Murguialday, Clara; Del Río, Amaia; Anitua, Estibalitz y Maoño, Cristina (2000). *La perspectiva de género en las OND vascas*. Mugarik Gabe/Hegoa
<http://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/12562>
- Navarro, Natalia (2007). *Desigualdades de género en las organizaciones: procesos de cambio organizacional pro equidad*. PNUD. Proyecto América Latina Genera.
www.dhl.hegoa.ehu.es/recursos/482
- Navarro, Natalia (2002). *“Cambiar el chip”: revisión de algunos conceptos para poder impulsar cambios organizacionales en pro equidad de género*. Acsur-Las Segovias
http://www.americalatinagenera.org/es/index.php?option=com_content&task=view&id=905&pub_id=598
- Volio, Roxana (2008). *Género y cultura en la planificación del desarrollo*. FUNDESCAN.
- Vázquez, Norma; Murguialday, Clara y Grupo de Género de la CONGDE (2001). *Guía para alfabetizarse en género y desarrollo*. Coordinadora de ONGD de Euskadi.

